

Dosierra

Sexu-indarkeriaren aurreko babesa gatazka armatuetan.

Nazioarteko tresna juridikoak eta haien aplikazioa

Ander Gutiérrez-Solana Journoud
iker zirion landaluze



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE ECONOMÍA Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTKO LANBETZA ETA GARAPENARI BURDIN BARRERA INSTITUTUA

Dosierra

Sexu-indarkeriaren aurreko babesa gatazka armatuetan.

**Nazioarteko tresna juridikoak
eta haien aplikazioa**

**Ander Gutiérrez-Solana Journoud
iker zirion landaluze**



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE ECONOMÍA Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE ECONOMÍA Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL

Argitalpen hau *Trantsiziozko justizia eta kritika feminista: giza eskubideen urraketa larrien ondoriozko zigorgabetasun patriarkalaren aurkako* baliabideak Proiektuaren esparruan egin da. PRO-2018K30031. GLEAren laguntzarekin.



Sexu-indarkeriaren aurreko babesa gatazka armatuetan.
Nazioarteko tresna juridikoak eta haien aplikazioa

Egilea: Ander Gutiérrez-Solana Journoud, iker zirion landaluze

2020



www.hegoa.ehu.eus

hegoa@ehu.eus

UPV/EHU • Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81 • 48015 **Bilbao**
Tel.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU • Carlos Santamaria Zentroa
Elhuyar Plaza 2 • 20018 **Donostia**
Tel.: 943 01 74 64 • Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU • Campuseko Liburutegia
Nieves Cano, 33 • 01006 **Vitoria-Gasteiz**
Tel.: 945 01 42 87 • Faxa: 945 01 42 87

Itzultzailea: Maku Florentino Garbizu

Imprimatzailea: Printheus S.L.

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Lege gordailua: LG BI 00149-2021

ISBN: 978-84-16257-72-0



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopia, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedearako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

Dosierra

Sexu-indarkeriaren aurreko babesa gatazka armatuetan.

Nazioarteko tresna juridikoak eta haien aplikazioa

Ander Gutiérrez-Solana Journoud. Zuzenbidean eta Nazioarteko Harremanetan doktorea Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). “Nazioarteko erakundeak, estatuak eta enpresak gizarte globalizatu batean: Giza Eskubideak Babesteko erronka berriak (2019-2021)” ikerketa-taldeko kidea da, bai eta Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioak finantzatutako “Nazioarteko arauak sortzeko prozesuak: Westfalia eta Wordfalia artean” ikerketa-proiektukoa ere (DER2017-85800-P9). Nazioarteko Erakundeak, gizarte zibil globala, nazioarteko arauak eraikitzeko eta ezartzeko modu berriak eta genero-ikuspegia nazioarteko justizian dira haren interes-arloak. Bere argitalpenen artean hurrengoak aipatu behar dira: *Estudio de las percepciones estatales y de la sociedad civil de la ONU, la OMC y la OIT* (2014) eta *El uso del pañuelo islámico en el trabajo a la luz de la reciente jurisprudencia del TJUE. ¿Cuestión de discriminación religiosa, por razón de género o de discriminación múltiple?* (2019).

iker zirion landaluze. Nazioarteko Ikasketetan doktorea eta Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakaslea da. Hegoako kidea da, UPV/EHUko Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua, bai eta euskal unibertsitate-sistemako (IT1037-16) Giza Segurtasunari, Tokiko Giza Garapenari eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Ikerketa Taldekoa (2016-2021) ere. Interesgune ditu: bakearen eraikuntza eta generoa; borrokalari ohien armagabetzea, desmobilizazioa eta gizarteratzea; justizia feminista eta maskulinitate berriak. Beste argitalpen batzuen artean, *Pax Crítica. Aportes teóricos a las perspectivas de paz posliberal* (2019) liburuaren egilekidea da eta *Desarme, desmovilización y reintegración de ex combatientes. Género, masculinidades y construcción de paz en la República Democrática del Congo* (2018) liburuaren egilea.

Aurkibidea

1. Sarrera	7
2. Gatazka armatuetako sexu-indarkeriari buruzko nazioarteko tresna juridiko nagusiak: edukia eta balio juridikoa	11
2.1. Eraikuntza juridikoaren prozesu heterogeneo eta mantsoa	11
2.2. Sorburua XIX. mendean eta Bigarren Mundu Gerraren osteko bultzada	14
2.3. Giza Eskubideen eskualdeetako sistemetako eta Nazio Batuetako eremuko tresnak	17
2.4. Antzinako Jugoslaviarako eta Ruandarako <i>ad hoc</i> Nazioarteko Zigor Auzitegien Estatutuak	19
2.5. Nazioarteko Zigor Gortearen Estatutua eta geroagoko nazioarteko garapenak	22
3. Jurisprudentzia adierazgarria nazioartean	27
3.1. Ruandarako Nazioarteko Zigor Auzitegia	28
3.2. Antzinako Jugoslaviarako Nazioarteko Zigor Auzitegia	30
3.3. Nazioarteko Zigor Gortea	34
3.4. Sierra Leonako Auzitegi Berezia	36
3.5. Giza Eskubideen eskualdeko Auzitegiak	37
3.5.1. Giza Eskubideen Sistema Interamerikarra	38
3.5.2. Giza Eskubideen Europako Auzitegia	39
4. Sexu-indarkeriari buruzko nazioarteko araudi eta jurisprudentziaren eragina Estatuotako barne-auzitegietan	41
4.1. Guatemala	41
4.2. Argentina	43
4.3. Kolonia	44
4.4. Peru	46
4.5. Kongoko Errepublika Demokratikoa	47

5. Dagoen marko juridikoari eta horren aplikazio jurisdikzionalari buruzko azken gogoetak	51
5.1. Identifikaturiko mugak eta hutsuneak	51
5.2. Hobetzeko proposamenei buruzko eztabaida irekia	55
6. Erreferentziak	59

1. Sarrera

2018ko abenduaren 10ean, Nadia Murad aktibista yezidiak eta Denis Mukwege Kongoko medikuak Bakearen Nobel Saria jaso zuten batera “gatazka armatuetan sexu-indarkeria gerrako armatzat erabiltzearekin amaitzeko egindako lanagatik”. XX. mendeko 1990eko hamarkadaz geroztik giza eskubideei eta bakeari buruzko nazioarteko agendatan sexu-indarkeriak (SI) izan duen ikusgarritasun hazkorraren isla da eremu horretako lana aintzat hartu izana. Ikusgarritasun horren bultzada izan dira emakumeen eta feministen nazioarteko mugimenduen hamarkadako borroka eta eragin politikoa.

Gatazka armatuak eta sexu-indarkeria elkarren ondotik joan dira gizateriaren historia osoan zehar. Elizabeth Odio Benitok (1998: 267), antzinako Jugoslaviako gatazkan eragindako sexu-indarkeriari buruz aipatzen duen bezala, “mendeetan zehar, emakumeen sufrimenduari gehitzen zaion kapitulua izan zen. Gerra guztien historia berbera izan da emakumeentzat, arrazoiak eta metodoak aldatzen joan diren arren”¹. Eta, hala ere, gizateriaren historian zeharreko gatazka armatuetan behin eta berriz errepikatu den gertaera izan arren, sexu-indarkeria ez da araudi juridiko berezien ez arreta mediatiko garrantzitsuaren xede izan orain dela gutxira arte. XX. mendeko azken hamarkadan sartu zen indartsu gatazka armatuei loturiko nazioarteko agendatan, legerian eta jurisprudentzian.

Bereziki azkeneko hiru hamarkadatan gatazka armatuetako sexu-indarkeriaren kontrako borrokarekin lotutako hainbat eta askotariko nazioarteko tresna juridikoak agertu dira. Azterlan honetan horietako

1 Elizabeth Odio Benito, Giza Eskubideen Gorte Interamerikarraren egungo presidentea da, eta antzinako Jugoslaviarako Nazioarteko Zigor Auzitegiko epaile –non sexu-indarkeriari buruzko berrikuntza juridiko sakonak eragin zituzten epaietako batzuetan parte hartu zuen– eta, geroago, Nazioarteko Zigor Gorteko epaile ere izan zen.

batzuk besterik ez ditugu aipatuko². Lan honen xedea honako hau da: alde batetik, gatazka armatuetako sexu-indarkeriaren kontrako borrokaren eta egungo egoera aztertzea. Horretarako, egun dauden nazioarteko tresnarik garrantzitsuenak eta jurisprudentziaren bidezko haien aplikazio praktikoa aztertuko ditugu; hau da, nazioarteko (eta hein txikiagoan, nazioko) auzitegiek emandako epaiak; eta beste alde batetik, arau eta jurisprudentzia marko horren muga eta ekarpen garrantzitsuenak eta horiek erreibindikazioei laguntzeko eta emakumeei, jasandako eskubide urraketagatik, justizia eta erreparazioa lortzen laguntzeko duten potentzialtasuna aztertzea.

Azterlan honen oinarria lehen eta bigarren mailako iturrien azterketa dokumentala da; hau da, alde batetik, nazioarteko araudi eta jurisprudentzia nagusia eta, bestetik, gai horri buruz dagoen literatura espezializatu eskergaren zati txiki bat. Testu honen luzerak ez digu ahalbidetzen aipatuko ditugun alderdi guztiak zehatz-mehatz aztertzea; beraz, gure asmoa da informazioa ahalik eta modu labur eta argienez ematea, praktikan, lanaren kontsulta erabilgarria izan dadin. Horren ildoan, testu hau dokumentu zorrotza izatea nahi dugu ikuspuntu juridikotik eta, aldi berean, praktikoa dibulgazioaren ikuspegitik, hainbat arlotako legelariak nahiz zuzenbidean jantziak ez diren eragileek kontsultatzerik izan dezaten; besteak beste, erakunde publikoek, gobernuz kanpoko erakundeek (GKE), unibertsitateko ikasleek eta, nola ez, erakunde feministek eta giza eskubideen arloko erakundeek, iparraldekoak zein hegoaldekoak izan.

Testu hau bost atal nagusitan egituratuta dago. Sarrera honen ondoren, bigarren atalean, gatazka armatuetako sexu-indarkeria arautzen duten tresna

2 Egiaren Batzordeen moduko mekanismo ez-judizialak gure azterketatik kanpo geratzen dira, nahiz eta sexu-indarkeriaren gaia arreta bereziarekin aztertu duten horietako batzuek. Egiaren Batzordeetan egin duten generoaren –eta sexu-indarkeriaren– lanketa zehaztasunez aztertzeko, kontsultatu Mendia Azkue (2020). Ez ditugu aztertu beste hainbat ekimen ere, gobernuz kanpoko bestelako ekimen judizialak, gatazka armatuetako sexu-indarkeriari buruzko Kontzientzia Auzitegiak kasu; gizarte zibilarengandik sortutako ekintzak, pisu politiko eta sinboliko handia izan dutenak eta salaketan, biktimaren eta biktimagilearen identifikazioan, gizartearen sentsibilizazioan eta biktimen erreparazioan garrantzi handia izan dutenak.

Besteak beste, azpimarratu nahi ditugu “Japoniako armadaren sexu-esklabotzako gerra-krimenei buruzko Emakumeen Nazioarteko Auzitegia; Japonian 2000 urtean egin zena eta Bigarren Mundu Gerran Japoniako eta Japoniak okupatutako herrialdeetako milaka emakumeri eragindako kaltea erreparatzea xede zuena (Sakamoto, 2001); eta “Guatemalako barne gatazka armatuan emakumeei eragindako sexu-indarkeriaren kontrako Kontzientzia Auzitegia”. Azken Auzitegi horri buruzko informazio gehiago lortzeko, kontsultatu Mendia Azkue *et al.* (2012).

juridiko nagusiak jaso ditugu, eta haien bilakaera historikoa, edukia eta duten balio juridikoa azalduko dugu. Bereziki azpimarratu ditugu antzinako Jugoslaviarako eta Ruandarako Nazioarteko Zigor Auzitegien Estatutuak eta Nazioarteko Zigor Gortearena. Hirugarren atalean, tresna juridiko horiek nazioarteko zigor auzitegiek eta Europako eta Amerikako giza eskubideen eskualdeko auzitegiek nola aplikatu eta interpretatu dituzten aztertu dugu; bai eta haien jurisprudenziaren bitartez, sexu-indarkeriako krimenak aintzat hartzeko moduaren bilakaeran egindako lana ere. Laugarren atalean estatuetako barne auzitegiak aztertu ditugu, eta hainbat herrialdetako adibideak jaso ditugu (Guatemala, Argentina, Kolonbia, Peru eta Kongoko Errepublika Demokratikoa); herrialde horietako auzitegiek nazioarteko jurisprudenzia hori aintzat hartu eta aplikatu baitute bertako gatazka armatuetan edo errepresio-testuinguruetan eragindako sexu-indarkeriako kasuak epaitzean. Horrela, nazioarteko auzitegien epaiek estatuetako barne auzitegiek erabil ditzaten duten potentziala azpimarratu nahi dugu. Azkenik, bosgarren atalean, amaierako gogoeta batzuk jaso ditugu dagoen marko juridikoaren eta haren jurisdikzio-aplikazioan dauden hutsune eta mugei buruz alde batetik, eta hori dena hobetzeko aukerei buruz, bestetik.

2. Gatazka armatuetako sexu-indarkeriari buruzko nazioarteko tresna juridiko nagusiak: edukia eta balio juridikoa

2.1. Eraikuntza juridikoaren prozesu heterogeneo eta mantsoa

Gatazka armatuetako testuinguruetan sexu-indarkeriaren debekua arautzen duen nazioarteko arau-markoa norbanakoaren babesari loturiko Nazioarteko Zuzenbideko hiru adar desberdinetatik dator. Adar horiek une desberdinetan sortuak dira, eta garapen desberdina izan dute nazioarteko gizartearen bilakaeraren beraren eta hura arautzen duen zuzenbidearen ondorioz. Alde batetik, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa (NZH), XIX. mendearen bigarren erdialdean sortua eta, apurka, gatazka armatuen testuinguruan sexu-indarkeriaren aurreko babesari aitortzen duena. Beste alde batetik, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea (GENZ), gizakion duintasuna oinarri hartuta, Bigarren Mundu Gerratik aurrera, pertsonen giza eskubideak aitortzen hasi zena. Eta azkenik, Nazioarteko Zigor Zuzenbidea (NZZ), nazioarteko komunitate osoarentzat bereziki larriak diren egintzengatik norbanakoaren zigor-erantzukizunean oinarritua, eta bereziki XX. mendeko 1990eko hamarkadatik aurrera garatuz joan dena.

Bilakaera hori dena oso eduki, izaera eta balio juridiko desberdineko tresna juridikoen bitartez gertatu da. Testu honetan aztertuko ditugun eta sexu-indarkeriarekin lotura duten eskubide eta betebeharrak sortzeko modu batzuk laburtuko ditugu:

- *Ohiturazko zuzenbidea.* Nazioarteko Zuzenbidearen jatorrian eta horren garapenean ere, arau gehienak ez zeuden kodifikatuta (tratatu edo bestelako testuetan jasota). Hori dela eta, nazioarteko ohitura, hau da, estatuen ohiko jarduna (aurretiazko antzeko egoeren aurrean

izandako portaera iraunkor eta uniformea) izan da historian zehar Zuzenbidearen adar honen iturri nagusia. Izan ere, hasieran, gatazka armatuetan onargarriztat jotzen ziren portaerak, gerraren usadio eta ohituretan oinarritzen ziren batik bat. Nazioarteko jurisdikzio-organoei dagokie nazioarteko jardun jakin bati ohiturazko zuzenbide izaera ematea edo ez ematea.

- *Zuzenbide konbentzionala (nazioarteko tratatuak)*. Denbora igaro ahala, ohiturazko zuzenbidea nazioarteko tratatu idatzietan kodifikatzen hasi ziren, eta eduki zehatzago eta formalagoa jasotzen zen bertan. Honako testu honetan nazioarteko hainbat tratatu aztertuko ditugu, besteak beste: Hagako Konbentzioak (1899 eta 1907); Genevako Konbentzioak (1949), emakumeen kontrako diskriminazio modu guztiak Desagerrarazteko Konbentzioa (CEDAW) (1979) edo Nazioarteko Zigor Gorteak sortutako Erromako Estatutua (1998).
- *Aginduzko arauak (ius cogens)*. Edukia kontuan hartuta, nazioarteko komunitate osoak nahitaezkoztat hartzen dituen arauak dira, komunitate horren balio etiko komunak jasotzen dituztenez, Nazioarteko Zuzenbidearen egiturazko printzipioen adierazpen juridikoa direlako. *Ius cogens* arau horiek, nazioarteko jurisprudentziak identifikatzen dituenak, errespetatu egin behar dira, baina ez hori bakarrik, ez dute kontrako erabakirik onartzen eta aginduzko izaera berbera aintzatesten zaien geroagoko beste arau batzuen bidez soilik aldaraz daitezke. Testu honetan aztertuko ditugun arauetako batzuk *ius cogens* arautzat onartuak izan dira; esaterako, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioko oinarritzko arauak.
- *Zuzenbide instituzionala*. Nazioarteko erakundeak sortzean nazioarteko eskubide eta betebeharrak sortzeko eredu berri bat sortu zen: bere baitan onartutako egintzak. Honako testu honetan, antzinako Jugoslaviarako eta Ruandarako Nazioarteko Zigor Auzitegiak eratu zituzten Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluaren ebazpenak eta “emakumeak, bakea eta segurtasunari” buruzko 1325 Ebazpena aztertuko ditugu, besteak beste.
- *Nazioarteko jurisprudentzia (nazioarteko auzitegien epaiak)*. Behin sortuta, nazioarteko auzitegiek euren epaien bidez aplikatzen, interpretatzen eta garatzen dute Nazioarteko Zuzenbidea. Horien artean daude nazioarteko zigor auzitegiak eta giza eskubideei buruzko nazioarteko auzitegiak. Alde batetik, nazioarteko zigor auzitegiak,

norbanakoaren zigor erantzukizuna epaitzen dutenak (hau da, krimenak eragin dituzten pertsonena) bi motatakoak izan daitezke: a) gatazka zehatz bateko egintzak epaitzeko *ad hoc* sortutako auzitegiak; horiek nazioarteko izaera eskusiboa izan dezakete osaketari eta aplikagarri den zuzenbideari dagokienez (antzinako Jugoslaviarako eta Ruandarako Nazioarteko Zigor Auzitegiak bezala), baina bai eta izaera misto edo hibridoa ere, eta horietan, nazioko eta nazioarteko epaileek hartzen duten parte eta estatu horretako barne zuzenbidea eta nazioarteko zuzenbidea erabiltzen dituzte (Sierra Leonarako Auzitegi berezia, kasu); eta b) izaera iraunkorreko auzitegiak, Nazioarteko Zigor Gortea kasu, 2002an indarrean jarri zena. Beste alde batetik, giza eskubideen nazioarteko auzitegien artean –estatuaren erantzukizuna (eta ez norbanakoena) epaitzen dutenak– eskualde-eremuko bi auzitegi aipatu ditugu: Giza Eskubideen Europako Auzitegia eta Giza eskubideen Europako Auzitegia eta Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra.

- *Nazioko legeria*. Nazioarteko arauak betebeharrak ezartzen dizkiete estatuei, talde armatuei eta/edo norbanakoei. Sarritan, bertako ordenamendu juridikoetan txertatzeko eskatzen diete espresuki onartu dituzten estatuei, beharrezkoa balitz, barne-zuzenbidea aldarazteraino. Nazioarteko Zigor Gortearen Estatutuaren zenbait xedapenen edo emakumeen aurkako diskriminazio mota oro desagerrarazteko Konbentzioaren kasua, esaterako. Horrek esan nahi du nazioarteko zenbait betebeharrak barneko zuzenbidean ere jasota daudela, eta horrek babes maila eta berme handiagoa esan nahi du.
- *Nazioko jurisprudentzia*. Estatuetakoko barne auzitegiek nazioarteko legeak eta/edo jurisprudentzia aplikatzen eta interpretatzen duten heinean, haiek ematen dituzten epaiek estatu horretan etorkizuneko zuzenbide-iturri bihurtzen diren aurrekari juridikoak sortzen dituzte. Halaxe gertatu da testu honetan aztertuko ditugun kasuetako batzuetan: Guatemala, Argentina, Kolonbia eta Kongoko Errepublika Demokratikoa.

Hainbat bidetatik (esaterako, tratatuak eta ohiturazko zuzenbidea) antzeko edukia –bai eta berdin-berdina ere– duten nazioarteko eskubide eta betebeharrak sortzea eta, gerora, izatea bera, oso garrantzitsua da arrazoi batengatik. Arau horietako bakoitza autonomia da, eta izate eta aplikagarritasun propioak ditu. Guri dagokigun kasuan, bortxaketa debekatuta egotea eta, aldi berean, nazioarteko arau batek (Genevako Konbentzioak, 1949) eta ohiturazko

zuzenbideko arau batek zigortzeak bi bide horietatik sortzen ditu betebeharrak, eta horri esker, portaera hori hainbat arau urratu izanagatik jazar daiteke.

Laburbilduz, gatazka armatuetako sexu-izaerako krimenen egungo nazioarteko marko juridikoa prozesu mantso, konplexu eta luze baten emaitza da, zeinetan aipatutako Nazioarteko Zuzenbideko hiru eremuen (NZH, GENZ eta NZZ) arteko interakzioa nazioarteko tresnen pluraltasunaren eta heterogeneotasunaren bidez gertatzen den. Errealitate hori datozen ataletan aztertuko dugu:

2.2. Sorburua XIX. mendean eta Bigarren Mundu Gerraren osteko bultzada

Gatazka armatuetan sexu-indarkeriaren nazioarteko araubide juridikoa nahiko berria da eta XIX. bigarren erdialdean koka dezakegu haren sorburua; gerrako zuzenbidea (*ius in bello*) –hau da, “gerra nola egin”, zer portaera diren onargarriak eta zein ez, definitu nahi duten legeak– arautzen ahalegintzeko zenbait tresna sortu ziren unean.

Ekimen horien artean dago Lieber Kodea (1863), Ipar Amerikako gerra zibilean Batasunaren Armadak eginga, eta une hartan gerran onartezintzat jotzen ziren portaerak ezartzen zituzten Nazioarteko Ohiturazko Zuzenbideko arauak bildu zituzten bertan. Haren 44. artikuluan bortxaketa debekatzen zen espresuki, eta arau hori urratzea heriotzarekin zigortzen zen. Lieber Kodean jasotzen diren gerra-legeen ohiturazko zuzenbideari buruzko xedapenak oinarritzat hartu ziren Hagako Konferentzietan (1899 eta 1907); horietan, gerrarekin eta une hartan nazioarteko komunitatean zeuden Estatu gehienen arteko gatazken ebazpidearekin loturiko nazioarteko hainbat itun sortu ziren. Konferentzia horietatik sortutako itunek gatazka armatuetan parte hartzen duten alderdien portaerak “ohorea eta familiaren eskubideak”³ errespetatu beharra aipatzen dute, eta beti interpretatu izan da esaldi horretan inplizituki sartuta dagoela bortxaketaren debekua. Zeharkako erreferentzia horrek geroagoko nazioarteko arauetan jasoko den ideia islatzen du; hau da, sexu-indarkeria (norberaren, familiaren,

3 46. artikuluek, bai II. Hitzarmenarena, lurreko gerrari buruzko lege eta ohituren gainekoak (1899), bai IV. Konbentzioari atxikiriko Araudiarena, lurreko gerrari buruzko lege eta ohituren gainekoak (1907), erreferentzia hori jasotzen dute.

erkidegoaren) duintasunaren edo ohorearen kontrako irain gisa ulertua, ez ordea krimen gisa, nahiz eta beste portaera batzuk bai halakotzat hartzen diren, tortura, esaterako (Gamarra, 2005:12).

Urte batzuk geroago, Bigarren Mundu Gerran gertatu ziren giza eskubideen urraketen larritasunaren eta handitasunaren aurrean, pertsonak babesteko hainbat ekimen bultzatu zituzten⁴. Gorago aipatutako Nazioarteko Zuzenbideko adarretako bakoitzaren garapena, besteak beste: Nazioarteko Zigor Zuzenbidea, Nurenberg eta Tokioko nazioarteko Auzitegi Militarren bitartez (1945); Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa, Genevako lau Konbentzioen bidez, 1949; eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren bitartez, 1948, geroagoko giza eskubideen inguruko beste tresna askoren abiapuntu izan zena.

Bigarren Mundu Gerra amaitu eta berehala, potentzia aliatuek Nurenberg eta Tokioko Nazioarteko Auzitegi Militarrek sortu zituzten herrialde galtzaileetako goi kargu militarrek bereziki larrizat jotako nazioarteko krimenengatik epaitzeko: gerra-krimenak eta gizateriaren kontrako krimenak, hain zuzen. Nurenbergeko Estatutuan une hartan nazioarteko araudian jada jasota zegoen “gerra krimen” kategoria jaso zen, eta “gizateriaren kontrako krimen” kategoria berria txertatu zuten, eta horren oinarria izan zen zenbait krimenek krimena bera pairatzen duten zuzeneko biktimak ez ezik, haien izaera eta larritasunaren ondorioz, pertsona horiek baino urrunago iristen direla, gizateria osoaren kontrako eraso bihurtu arte (Zorrilla, 2005: 10 eta 16).

Ez auzitegi bateko ez besteko estatutuetan ez ziren jaso nazioarteko krimen jazargarri gisa ez bortxaketa ez bestelako sexu-indarkeria modu batzuk; baina hala ere, auzitegi baten zein bestearen portaera gai honen inguruan oso desberdina izan zen. Nurenbergeko Auzitegian, Alemaniako karguek emakumeen aurka antolatutako bortxaketa masiboei buruz epaiketetan agertu ziren ebidentziak ez zituzten kontuan hartu, eta inor ez zuten epaitu –eta

4 Lehenengo Mundu Gerrako ondorioek, horiek ere suntsigarriak izanik ere, ez zuten halako eragin nabarmena izan gatazka armatuetan pertsonen eskaini beharreko nazioarteko babesaren garapenari dagokionez. Hala ere, aurrekaririk badago bortxaketa eta behartutako prostituzioa banakako zigor-erantzukizuna eragiten duten nazioarteko krimen gisa kalifikatzerakoan, gerra horren ondoren sortutako Batzorde batek aintzat hartua eta 32 nazioarteko krimen identifikatu zituen (Ojinaga Ruiz, 2002: 217), edo Genevako Hitzarmena, gerra-presoei eman beharreko tratuari buruzkoa, 1929koa.

ondorioz, zigortu ere ez- gertaera haiengatik⁵. Tokioko Auzitegiak, aldiz, Toyoda eta Matsui jeneralak eta Hirota, Atzerri Ministroa auzipetu egin zituen haien agintepean zeuden soldaduek emakumeak maila handian eta modu orokortuan bortxatu izanagatik Txinako Nanking hirian, eta egintza horiek gerra krimenez hartuak izan ziren (Ojinaga Ruiz, 2002: 217)⁶.

1949an onartutako Genevako Konbentzioetan bai aipatu zen espresuki bortxaketa (eta bestelako sexu-indarkeria moduak) Bigarren Mundu Gerran gertatu ziren Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren urraketen erantzun gisa. Horrela, IV. Hitzarmenaren 27. artikuluan, gerra garaian pertsona zibilak babesteari buruzkoan, aipatzen da oso izaera paternalistarekin "emakumeak bereziki babestuek izango direla haien ohorearen kontrako edozein erasoren aurrean eta, bereziki, bortxaketaren, behartutako prostituzioaren eta haien ahalkearen kontrako eraso ororen aurrean"⁷. Modu berean, 1949ko Genevako lau Konbentzioetan komuna den 3. artikuluan jasotzen da "debekatuta daudela pertsonaren duintasunerako erasoak, bereziki tratu umiliagarri eta laidogarriak", eta bai nazioarteko doktrinak bai jurisprudentziaren parterik handienak ere, adierazpide horretan sexu-indarkeriaren debekua jasota dagoela ulertu dute.

Magdalena Martín eta Isabel Lirolak (2013:14) aipatzen dutenaren harira, Konbentzio horien garrantzia bitarikoa da. Alde batetik, nazioarteko tratatu

5 Izan ere, bortxaketa hitza ez da behin ere agertzen Nurenbergeko Auzitegiaren epaiaren 179 orrialdeetan. 1945eko abenduko 10 zk.dun Kontrol Aliatuari buruzko Legeak – Nurenbergeko Auzitegiaren Estatutuan oinarrituak eta hurrengo urteetan maila txikiagoko militar alemaniarrak epaitzeko balio izan zuenak– bai jasotzen zuen bortxaketaren berariazko erreferentzia bat (II. 1. c artikulua), eta, gainera, gizateriaren kontrako krimenezat jotzen zuen (Odio Benito, 1998: 271-272).

6 "Nankingeko bortxaketa" izenez ezagutzen den eta Bigarren Mundu Gerraren aurretik, 1937an, 20.000 emakume txinatarri eragin zion gertaera hori modu berezian tratatu zen epaketan, nahiz eta emakumeen sexu-esklabotza oso jardun orokor eta antolatua izan zen Japoniako armadaren aldetik gerrak iraun zuen bitarte osoan eta okupatutako lurralde guztietan (Korea, Txina, Filipinak, Thailandia, etab.).

7 Antzeko debekuak ezarri zituzten Genevako Konbentzioen arau-garapenean 1977an onartu zituzten bi Protokolo Gehigarrietan. Hain zuzen ere, I Protokolo Gehigarriaren 75.2.b) artikuluan (nazioarteko gatazkei buruzkoa), debekatu egiten dira "pertsonaren duintasunaren kontrako erasoak, bereziki tratu umiliagarri eta laidogarriak, behartutako prostituzioa eta ahalkearen kontrako beste edozein eraso", eta II Protokolo Gehigarriaren 4.2.e) artikuluan (nazioartekoak ez diren gatazkei buruzkoa) idazkera ia berbera dauka, baina bortxaketa gehitzen du debekatutako portaera gisa ("pertsonaren duintasunaren kontrako erasoak, bereziki tratu umiliagarri eta laidogarriak, bortxaketa, behartutako prostituzioa eta ahalkearen kontrako beste edozein eraso").

izateaz gain, bertan jasotako xedapenetako batzuk (torturaren debekua eta NZHko beste arau batzuk) ohiturazko zuzenbidetzat aintzat hartuak izan direlako (batzuk, gainera, ius cogens edo aginduzko zuzenbideko arau gisa), eta, beraz, gatazka armatu orotan eta alderdi guztiek errespetatu behar dituztelako; eta, bestetik, arau horiek, apurka, barne araudietan txertatuz joan direlako, halako eraz non estatu askok 1949ko Genevako Konbentzioetako sexu-indarkeriaren debekuari buruzko xedapenak euren barneko zuzenbidean ere jaso dituzten.

2.3. Giza Eskubideen eskualdeetako sistemetako eta Nazio Batuetako eremuko tresnak

Bigarren Mundu Gerraren osteko bultzadaren ondoren, XX. mendeko bigarren erdialdean, gatazka armatuetako sexu-indarkeriari buruzko hainbat eta askotariko nazioarteko tresna juridikoak agertzen joan ziren. Horietako bat ere ez da espezifikoki bortxaketari edo bestelako sexu-indarkeria moduei buruzkoa (Gamarra, 2005:13), baina askok aipatu egiten dute giza eskubideen eta/edo gatazka armatuen eremuetatik. Lehen aipatu dugun bezala, testu honen luzera dela eta, interesgarrien iruditzen zaizkigunetako batzuk baino ezin ditugu aipatu, geroago aipatuko ditugun batzuk bereziki.

Alde batetik, Europako eskualde-izaera duten giza eskubideak babesteko zenbait tresna eta auzitegi juridiko nabarmenduko ditugu; hala nola, Giza Eskubideen Europako Hitzarmena (1950) eta Giza Eskubideen Europako Auzitegia, giza eskubideen interpretazioaz eta kide diren estatuak beteko dutela bermatzeaz arduratzen den organo jurisdikzionala. Aldi berean, Amerikan, Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarra eta Giza Eskubideen Gorte Interamerikarra daude; azken hori Giza Eskubideen Konbentzio Amerikarraren (1969) berme jurisdikzional gisa. Giza eskubideen⁸ eskualdeetako aipatutako

8 Bi eremu geografikoetan emakumeen kontrako indarkeriari buruzko itun espezifikoak jaso dira. European, emakumeen kontrako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren prebentzioaren eta haien kontrako borrokari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (2011), “Istanbuleko Hitzarmena” izenez ezaguna, eta Amerikan, emakumeen kontrako indarkeria prebentzeko, zigortzeko eta desagerrarazteko Konbentzio Interamerikarra (1994), “Belém do Pará Konbentzioa” izenez ezaguna. Nahiz eta testu honetan ez diogun helduko Afrikako Giza Eskubideen Sistemari, hemen adierazten dugu haren erreferentziazko Ituna Giza Eskubideen eta Herrien Afrikako Gutuna dela. Honen garapena Afrikako emakumeen eskubideei buruzko Protokoloaren (2003) bidez eman da, “Maputoko Protokoloa” bezala ezaguna dena, eta bertan badago berriazko erreferentzia bat gatazka armatuetan emakumeen kontrako indarkeriari buruz (bereziki bortxaketari eta bestelako sexu-esplotazioari buruz). Hala ere, aplikazio eta garapen urria izan duen jurisdikzio-organotan.

itunetako batean ere gatazka armatuetako sexu-indarkeriari buruzko berriarazko aipamenik ez dagoen arren, horien segimendua egiteko sortutako auzitegiek bai jaso dituzte gai horri buruzko nazioarteko zigor-uzitegien epaietako argudioak euren eskumeneko kasuetan aplikatzeko, eta euren eremu geografikoetan aurrekari juridikozional garrantzitsuak sortuz, aurrerago azalduko dugun bezala.

Beste alde batetik, izaera unibertsaleko giza eskubideen nazioarteko itunetan ere ez dago sexu-indarkeriari buruzko erreferentzia zuzenik, ez eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean (1948), ez hura garatzen duten Giza Eskubideen Nazioarteko (1966) bi itunetan ere; eskubide zibil eta politikoei buruzkoa bat, eta eskubide ekonomiko, sozial eta kulturaleri buruzkoa, bestea.

Egoera aldatu egiten da unibertsalak diren baina gai oso espezifikoari buruzkoak diren zenbait tresnarekin. Esaterako, Haurraren Eskubideei buruzko 1989ko Konbentzioak eta adingabeek gatazka armatuetan parte hartzeari buruzko haren protokoloak (2000) sexu-indarkeria aipatzen ez duten arren, beste itun espezifiko batzuen edukia (Genozidio delitua prebenitzeko eta zigortzeko Konbentzioa, 1948, edo Torturaren eta bestelako tratu edo zigor anker, zital eta laidogarrien aurkako Konbentzioa, 1984) erabili izan da sexu-indarkeriaren gaiaren inguruan nazioarteko zigor-uzitegien epaietan.

Emakumeen kontrako diskriminazio modu oro desagerrarazteko 1979ko Konbentzioan ere aurkitu ditugu erreferentziak; hain zuzen, CEDAWeko Batzordeak itun horren edukia interpretatzeko eta garatzeko emandako “Gomendio Orokorrak” izenekoan garapenean. 30. Gomendio Orokorra da (2013), “emakumeak gatazken prebentzioan eta gatazka edo gatazka-osteko egoeratan” gaiari buruzkoa, alderdi hori zehaztasun handienarekin garatzen duena. Gomendio horretan, besteak beste, honako betebeharrak hauek gogorarazten zaizkie estatuei: barne-legeen bidez, gatazkan diharduten alderdi guztiei sexu-indarkeria debekatzea, nazioarteko zigor-uzitegien eta auzitegi mistoen jurisprudentziatik eta Nazioarteko Zigor Gortearen Erromako Estatututik (Gomendioaren 24. eta 38. lerroaldeak) ondorioztatzen den bezala; estatuko eta estatuz kanpoko agenteek eragindako sexu-indarkeria prebenitzea, ikertzea eta zigortzea, zero-tolerantzia deituriko politika gauzatzuz; indarkeria hori pairatu behar izan duten emakumeek eta neskek justiziarako eta zerbitzu medikoetarako (osasun fisiko eta mentalari eta ugalketari loturikoak), juridikoetarako eta psikosozialetarako irisgarritasuna izango dutela bermatzea (38. paragrafoa).

Azkenik, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren markoan, 1325. Ebazpena azpimarratu nahi dugu, “emakumeak, bakea eta segurtasuna”ri buruzkoa (2000). Horretan, gatazka armatuen testuinguruan gertatutako sexu-indarkeriaren gaineko erreferentzia (aplikagarri den Nazioarteko Zuzenbidea errespetatzeko eskatzen duena, bereziki 1949ko Genevako Konbentzioak), gai berberaren inguruko geroagoko ebazpenekin osatu zuten. Bereziki interesgarria da 1820 ebazpena⁹; izan ere, emakumeen kontrako sexu-indarkeria sistematiko eta orokorra “nazioarteko bakearen eta segurtasunaren aurkako mehatxu” gisa identifikatzen du lehenengoz Segurtasun Kontseiluak (Robles Carrillo, 2012: 166).

2.4. Antzinako Jugoslaviarako eta Ruandarako *ad hoc* Nazioarteko Zigor Auzitegien Estatutuak

Martin eta Lirolak (2013:16) adierazten duten bezala, gatazka armatuetako testuinguruetan sexu-indarkeriaren zigor-jazarpenera Nazioarteko Zigor Zuzenbidearen garapenarekin eta Zuzenbide hori aplikatzen duten nazioarteko zigor organo juridikzionalen sorrerarekin batera joan da. Nurenberg eta Tokioko esperientzien ondoren, aurrekaririk ez zuen aurrerapausoa eman zen 1990ean, antzinako Jugoslaviarako Nazioarteko Zigor Auzitegia (JNZA) eta Ruandarako Nazioarteko Zigor Auzitegia (RNZA) sortu zituztenean. Horien eskuetan geratzen zen herrialde horietan izan ziren gatazketan gauzatutako krimen bereziki larrien egileen banakako erantzukizun penala epaitzea.

Bi auzitegi berezi dira, *ad hoc*, iraupen eta eremu geografiko mugatuarekin eta Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren bi ebazpenen bidez sortuak¹⁰. Bi auzitegi horien jurisprudentziak berebiziko garrantzia izan du Nazioarteko Zigor Zuzenbidearen garapenean eta, bereziki, izaera sexualeko krimenen jazarpenean. Ondoren, krimen horiekin lotuta, haien Estatutuetan jasotzen diren xedapenak aztertuko ditugu labur.

9 Honen atzetik, gatazka armatuetan emakumeen kontrako sexu-indarkeriari buruzko hainbat ebazpen espezifiko izan dira; hain zuzen 1888 (2009), 1960 (2010) eta 2106 (2013) ebazpenak.

10 JNZAren kasuan, Segurtasun Kontseiluaren 1993ko maiatzaren 25eko 827 Ebazpena; eta, RNZAren kasuan, Segurtasun Kontseiluaren 1994ko azaroaren 8ko 955 Ebazpena.

Antzinako Jugoslaviarako Zigor Auzitegiaren Estatutuak¹¹ bere eskumeneko hainbat portaera jasotzen ditu 2tik 5era bitarteko artikuluetan. 2. artikuluan (“1949ko Genevako Konbentzioen urratze larriak”), sexu-indarkeriaren erreferentzia zuzenik jasotzen ez den arren, bai jasotzen dira b) “tortura edo tratu anker edo laidogarriak” eta c) “nahita sufrimendu larriak eragitea edo osotasun fisikoaren edo osasunaren kontra larriki eraso egitea” ataletan. Orobat, 4. artikuluan (“Genozidioa”) ez dago sexu-indarkeriaren aipamenik, baina, “osorik edo partzialki talde nazional, etniko, arraza-talde edo erlijioso bat suntsitzera” bideraturiko ekintzak jasotzen dira, eta horien artean, b) “taldeko kideen osotasun fisiko edo psikikoaren kontrako eraso larriak” eta d) “talde baten baitan jaiotzak eragoztera bideraturiko neurriak” ataletan, geroago, JNZAk hedaduraz erabili zituenak. Haren iritziz, alde batetik, zalantzarik gabe, sexu-indarkeriak pairatzen duenaren osotasun fisiko eta mentalaren kontra eragiten du eta, bestetik, jaiotzak eragoztera bideratutako neurrien artean izaera sexuala dutenak ere izan daitezke. Estatutuaren interpretazio horrek ahalbidetu zion JNZARI izaera sexu-leko hainbat portaera genozidio-krimen gisa kalifikatzea. Azkenik, 5. artikuluan (“Gizateriaren kontrako krimenak”), bortxaketaz gain, bestelako sexu-indarkeria dakarten zenbait portaera jasotzen dira; besteak beste, tortura eta bestelako tratu ankerrak.

Ruandarako Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Estatutuak¹² auzitegi honen eskumenekoak diren portaerak jasotzen ditu 2tik 4ra bitarteko artikuluetan. 2. artikuluan (“Genozidioa”) berriro ere jasotzen ditu talde nazional, etniko, arraza-talde edo erlijioso bat osorik edo partzialki suntsitzeko asmoa” duten ekintzak eta, JNZAREN kasuan bezala, horien artean daude “taldeko kideen osotasun fisiko edo psikikoaren kontrako eraso larriak” eta “taldearen baitan jaiotzak eragoztera bideratutako neurriak” (b eta d atalak). 3. artikuluan (“Gizateriaren kontrako krimenak”), JNZAk bezala, bortxaketa nahiz sexu-indarkeria eragin dezaketen zenbait portaera; hala nola, tortura eta bestelako tratu ankerrak. Azkenik, eta “barneko gatazka” dela kontuan hartuta, Genevako Konbentzioetan eta haren II. Protokolo Gehigarrian komunak diren 3. artikuluaurren urraketak” aipatzen ditu 4. artikulua. Horien artean daude “pertsonearen duintasunaren kontrako erasoak, bereziki, tratu umiliagarria eta laidogarria, bortxaketa, behartutako prostituzioa eta beste edozein eraso

11 Ikusi bere estatutua JNZAREN webgune ofizialean:

<https://www.icty.org/en/documents/statute-tribunal>

12 Ikusi bere estatutua RNZAREN webgune ofizialean:

https://unictr.irmct.org/sites/unictr.org/files/legal-library/100131_Statute_en_fr_0.pdf

lizun”; eta horien erredakzioak NZHren xedapenak gogorarazten dizkigu, non bortxaketa emakumeen eta haien familien ohorearen eta duintasunaren kontrako erasotzat hartzen den berezko krimenez baino gehiago (Zorrilla, 2005: 55-56).

JNZA eta RNZAren Estatutuen edukiaz gain (sexu-indarkeriari loturiko portaera zigorgarriak), bi estatutu horiei atxikiriko dokumentu batean jasotako xedapen bat azpimarratu nahi dugu, “Prozedura eta Froga Arauei” buruzkoa. Sexu-indarkeriaren biktimak izan denarentzat epaiketa batean testigantza emateak eragin ditzakeen zailtasunak kontuan hartuta, besteak beste berbiktimizazioaren, estigmatizazioaren, tratu baztertzailaren edo bai eta segurtasunaren kontrako mehatxuen ondorioz (Zorrilla, 2005: 53-54; Manilla Falcón, 2008: 27-28), emakume biktimak eta lekukoak babesteko neurri bereziak ezarri zituzten bi testuetan. Horrela, auzitegi bakoitzaren “Prozedura eta Froga Arauak” izenekoaren 96. artikuluan (“Sexu-erasoen frogak”), honako hau jasotzen da¹³:

- “i) ez da eskatuko biktimaren testigantza berrestea
- ii) onespina ez da defentsatzat onartuko, baldin eta biktima(k)
 - (a) indarrez, mehatxuz, atxilotuta edo zapalkuntza psikologikoaren bidez mendean hartua edo mehatxatua izan bada, edo horren beldur izateko arrazoiak izan baditu, edo
 - b) zentzuz, uste izan badu berak men egin izan ez balu, beste pertsonaren bat hartuko zutela mendean, edo mehatxu egingo ziotela edo arriskuan jarriko zutela;
- (iii) biktimaren onespinen frogak onartu aurretik, akusatuak konbentzitu egin beharko du Auzitegiko Aretoa –ateak itxita bilera eginda–, froga horiek garrantzitsuak eta sinesgarriak direla;
- (iv) ez da frogatzat onartuko biktimaren alde aurreko sexu-portaera”.

13 JNZAren Estatutuaren “Prozedura eta Froga Arauak” izeneko agiritik guk geuk egindako itzulpena. Jatorrizkoa hemen kontsulta daiteke:

https://www.icty.org/x/file/Legal%20Library/Rules_procedure_evidence/IT032Rev50_en.pdf. RNZAren kasuan, agiri horren beraren 96. Artikuluak ia idazkera berbera dauka.

Xedapen honen antzeko aurrekaririk ez zegoen nazioarteko zigor prozesuen eremuan, ez eta estatuen barneko ordenamendu gehienetan ere¹⁴. Berez, oso ibilbide garrantzitsua izan du horrek; alde batetik, Nazioarteko Zigor Gortearen (NZG) sexu-indarkeriako kasuetarako prozedura-arauei atxiki zaielako eta, bestetik, horrek, aldi berean, eragin duelako NZGko kide diren hainbat estatuk barneko zigor-legeria prozesalean txertatu izana. Gainera, nazioarteko zigor auzitegiek eurek ere kendu egin diote pisua frogari eremu horretan, “autonomia sexualaren” ideia eta gatazka armatuko jokaleku batean onespina emateko ezintasuna aintzat hartuta.

2.5. Nazioarteko Zigor Gortearen Estatutua eta geroagoko nazioarteko garapenak

Ad hoc nazioarteko zigor auzitegien esperientzia (JNZA eta RNZA) lagungarria izan zen Nazioarteko Zigor Gorteak eratu zuen 1998ko Erromako Estatutuak gaur egunera arte, sexu-indarkeriarekin loturiko nazioarteko araudi garatuena jaso dezan, bai alderdi substantibotik –tipo penalak eta horien elementuak– bai alderdi prozesaleatik –prozedura judizialeterako arauak. Erromako Estatutuak aintzat hartzen du, beraz, NZGren eskumena sexu izaera duten krimenen kasuetan; antzinako Jugoslaviarako eta Ruandarako Nazioarteko Zigor Auzitegien jurisprudentziak aintzat hartuak zituen arren, inoiz ez baitziren aurretiaz jaso bere osotasunean nazioarteko beste ezein arautan.

Gainera, Estatutuan jasotzen ziren portaerak eta prozedura-arau horiek hain berritzaileak izateko beste elementu bat izan zen garrantzitsua: batik bat 1990eko hamarkadan, emakumeen eta feministen taldeek gauzatutako eragin politikoa, batez ere *Women's Caucus for Gender Justice* (Emakumeen Caucusa genero-berdintasunerako) izenekoaren bidez; hots, 200dik gora erakunde biltzen zituen antolakundea, genero-berdintasuna NZGn txertatzeko eta haren

14 Bereziki berritzaileak dira biktimaren onespenera eta aurretiazko sexu-portaerari dagokien defentsaren argudioen mugapenei buruz 96. artikuluko horrek jasotzen dituen neurriak. Hala eta guztiz ere, sexu-indarkeriari buruzko zigor-prozeduratan oraindik oso ohikoak dira gai horiek, eta sarritan, oso epai eztabaidagarriak eragiten ditu estatuetako barneko auzitegietan. Edonola ere, ezin ditugu 96. artikuluko horretako neurriak idealizatu; ez praktikan behintzat. RNZAren kasuan, esaterako, 1994an sortu zenetik 1997ra, Auzitegiak ez zuen sexu-indarkeriagatiko salaketarik jasotzen kasu bakarra jaso, nahiz eta ebidentziak badiren indarkeria hori sistematikoki eta modu masiboan eragiten zela. Maider Zorrillak (2005: 62-63) dio horren azalpena izan daitezkeela biktimen euren errezeloa, estigmatizazioaren edo errepresalien beldurragatik, eta haien eskubideak babesteko eta bermatzeko benetako sistemarik eza.

Estatutuan aurretiazko *ad hoc* auzitegietan gauzatu ziren aurrerapausoak sartzeko presio-talde garrantzitsuena bihurtu zena¹⁵.

Estatutuaren berrikuntza garrantzitsuena izan zen “izaera sexualeko krimenei buruzko kategoria berezia” (Martin eta Lirola, 2013:18) sortu izana; kategoria horretan, bortxaketaz gain, nazioarteko beste tresna batzuetan jasota zegoena, sexu-indarkeriako beste portaera batzuk ere jasotzen ditu, hala nola, sexu-esklabotza, behartutako prostituzioa, behartutako haurdunaldia eta behartutako esterilizazioa, eta horiek, zer inguruabarretan gertatzen diren arabera, gizateriaren kontrako krimen, gerra-krimen edo genozidio-krimentzat hartuak izan daitezke.

Alde batetik, Estatutuaren 7.1.g) artikulua aintzat hartzen ditu gizateriaren kontrako krimen gisa “bortxaketa, sexu-esklabotza, behartutako prostituzioa, behartutako haurdunaldia, behartutako esterilizazioa edo antzeko beste edozein sexu-indarkeria larri”, betiere –gizateriaren kontrako krimen guztien kasuan eskatzen den bezala– “biztanle zibilen kontrako eraso orokor edo sistematiko baten barruan eta eraso hori gertatuko dela jakinda” egin badira. Beste alde batetik, 8.2.b.xxii artikuluan honako hauek jasotzen dira gerra-krimen gisa: “nazioarteko gatazka armatuetan aplikagarri diren legeen eta usadioen bestelako urratze larriak” atalaren barruan: “bortxaketa, sexu-esklabotza, behartutako prostituzioa, behartutako haurdunaldia [...], behartutako esterilizazioa eta Genevako Hitzarmenen urratze larria eragiten duen beste edozein sexu-indarkeria mota”. Gerra-krimentzat hartuak izateko, sexu-indarkeriako egintza horiek “plan edo politika baten barruan edo krimen horien eskala handiko gauzatzearen barruan” gertatu behar dira¹⁶.

Bi artikuluko horietan jasotzen diren sexu-izaerako krimenak antzera formulatuta daude; beraz, egiaz, egozte eta zigor bera bermatzen dute eta ez du

15 Vienako Giza Eskubideen Nazioarteko Konferentzian (1993) eta Beijingo Emakumeen Nazioarteko IV. Konferentzian (1995) egindako salaketa eta eragin-lanak berebiziko bultzada eman zion emakumeen eskubideei eta indarkerietatik –besteak beste sexu-indarkerietatik– babesteari buruzko nazioarteko ekintzari. Lan hori, aldi berean, aurreko hamarkadetako ekimenen emaitza izan zen.

16 Aurretiazko nazioarteko arauai atxikiz, gerra-krimen edo gizateriaren kontrako krimentzat hartzeko, Erromako Estatutuak eskatzen du izaera sexualeko krimenek –gainerako krimenek bezala (hilketa, tortura, behartutako desagertzea, esklabotza, etab.) larritasun atalase altua eta xede politiko edo militarra edukitzea da (Martin eta Lirola, 2013: 8). Esaterako, Elizabeth Odio Benitok (1998: 273) dioen bezala, masiboak, orokorrak edo sistematikoak, biztanleria zibilarren kontra zuzenduak edo arrazoi nazional, politiko, etniko, arrazako edo erlijiosoen oinarrituak izan behar dute.

horrenbesteko garrantzirik portaera horiek gerra-krimenezat zein gizateriako krimenezat hartuak izatea. Orobat, bereziki garrantzitsua da artikulua horietan jasotzen diren sexu-izaerako portaerak modu zehatzean ez aurkeztea, modu irekin baizik, gerta litekeen “beste edozein sexu-indarkeria” barnean baitute. Era berean, aipatutako krimenak sexu- edo genero-erreferentziarik gabe aurkezten dituzte bi artikuluek. Behartutako haurdunaldiaren kasuan izan ezik, edozein pertsona izan daiteke sexu-izaerako krimenen biktima¹⁷. Hori bai, Estatutuaren 7.3 artikulua espresuki adierazten du “genero” hitza bi sexuei dagokiela, maskulinoari eta femeninoari”, beraz, binarismo sexogenerikora mugatzen da. Era berean, desagertu egiten dira egintza horien aurreko arauetan (bereziki Genevako Konbentzioetan) zeuden hartzaile bakarrak emakumeak direlako ustea (esplizitu ala inplizitu)¹⁸ eta ohoreari, lotsari edo familia-eskubideei egiten zitzaizkion erreferentzia anakronikoak, eta sexu-indarkeriari konnotazio erlijioso, kultural eta/edo soziala ematen ziotenak.

Azkenik, gizateriaren kontrako krimenetan eta gerra-krimenetan ez bezala, genozidio-krimena arautzen duten xedapenetan ez da sexu-izaerako inolako portaerarik jasotzen (Estatutuaren 6. artikulua). Hala ere, “taldeko kideen osotasun fisiko edo mentalaren kalte larria” edo “taldearen baitan jaiotzak eragoztera bideratutako neurriak” gisako portaerak jasotzen dira, eta, inguruabarren arabera, sexu-izaerako egintzak gauzatu izanaren ondorioa izan daitezke. Hala ere, ezerk ez du eragozten NZGren jurisprudentziak beste bi krimenetarako jasotzen dituen sexu-izaerako portaerak (bortxaketa, sexu-esklabotza, behartutako prostituzioa, behartutako haurdunaldia, behartutako esterilizazioa eta beste edozein sexu-indarkeria mota) genozidio-krimenezat

17 Hauxe izan zen Estatuak berariaz definituriko sexu-izaerako portaera bakarra. “Behartutako haurdunaldia” honela identifikatzen da 7.2.f) artikuluan: “indarrez haurdun utzi duten emakume baten legez kanpoko konfinamendua, helburu izanik populazio baten osaera etnikoa aldatzea edo nazioarteko zuzenbidearen bestelako urratze larriak egitea”. Geroago azaltzen da “inola ere ez da ulertuko definizio honek haurdunaldiari buruzko barneko zuzenbidearen araei eragiten dienik”. Definizio zehatz hau eta osteko esaldi argigarria txertatu izana abortuaren kontrako herrialdeen presioen ondorioz gertatu zen; portaera hori haurdunaldia nork bere borondatez etetearen aldeko legeekin parekatzea saihestu nahi zutelako. Gainerako krimen sexualak ez ziren Estatutuan definitu, “Krimenen Elementuak” izeneko dokumentuan baizik, zeinek, agian, definizio itxiegia jasotzen dituen eta, edozein kasutan eta Estatutua bera ez bezala, ez den nahitaezkoa NZGrako. Informazio gehiagorako, kontsultatu hemen: <https://www.icc-cpi.int/nr/rdonlyres/a851490e-6514-4e91-bd45-ad9a216cf47e/283786/elementsofcrimesspaweb.pdf>.

18 Duela gutxi hasi da literaturan garrantzi handiagoa hartzen gizonen aurkako sexu-indarkeria gatazka armatuetan. Hala ere, ez dago zalantza emakumeak direla sexu-indarkeria krimenei gehienbat aurre egin behar dietenak testuinguru horietan.

har dezan; betiere, artikulua horretan jasotzen den bezala, “talde nazional, etniko, arraza-talde edo erlijioso bat osorik edo partzialki suntsitzeko asmoarekin gauzatu badira”.

Bere eskumeneko krimenei dagokienez eta, sexu-izaerako krimenen kasuan, NZGren garrantzia berebizikoa da Nazioarteko Zigor Zuzenbidearen garapenean. Izaera iraunkorreko nazioarteko zigor auzitegia da (gaur egunera arte, bakarra), eta gaur egun 123 estatuk hartzen dute parte bertan. Estatu horiek haren mesedetan egin behar dute lan, baina horrez gain, Erromako Estatuaren xedapenak txertatu behar dituzte barneko legerietan. Ezin dugu ahaztu NZG nazioko justizia-sistemen osagarria dela; hau da, inplikaturik dagoen eta kasu hori epaitzeko eskumena duen estatuak gaiari buruz jakiteko gaitasunik edo borondate politikorik ez duenean soilik dauka kasu baten gaineko eskumena. Era berean, GNZtik eratortzen den jurisprudentzia estatuetako barneko auzitegien aurrean erabil daiteke. Hala eta guztiz ere, gaur egunera arte, sexu-izaera duten krimenen gaineko NZGren jurisprudentzia nahiko etsigarria da, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Erromako Estatuak nazioartean izan duen eragina begi bistakoa da, bereziki horren osteko ad hoc zigor auzitegietan. Sierra Leonarako Auzitegi Bereziaren (SLAB) (2002-2003) kasua da hori, hain zuzen; beraren 2. g) artikuluan honako hauek hartzen ditu gizateriaren kontrako krimenez: “bortxaketa, sexu-esklabotza, behartutako prostituzioa, behartutako haurdunaldia eta beste edozein sexu-indarkeria modu” (nahiz eta ez duen behartutako esterilizazioa aipatzen, NZGren Estatuaren bezala). Gerra-krimenak espresuki jasotzen ez dituen arren, 3. e) artikuluan aipatzen ditu “pertsonek duintasunaren kontrako erasoak, bereziki tratu anker eta laidogarriak, bortxaketa, behartutako prostituzioa eta beste edozein eraso lizun”¹⁹, Genevako lau Konbentzioen eta horren II. Protokolo Gehigarriaren 3. artikulua komunean jasotzen direnak. Azkenik, Sierra Leonako²⁰ nazio-legerian jasota dauden krimenei dagokienez, Haurtzaroarekiko Ankeretasuna Prebenitzeko Legean jasotzen diren 14 urtetik beherako nesken abusuekin loturiko zenbait delitu jasotzen ditu 5. artikuluan.

19 Sierra Leonarako Auzitegi Bereziaren Estatuaren itzulpen propioa:
<http://www.rscsl.org/Documents/scsl-statute.pdf>.

20 Gogoan izan behar dugu, izaera hibridoa duenez, SLABek Sierra Leonako Nazioarteko Zuzenbidea zein barneko Zuzenbidea epaitzeko erabili zuela.

Orobat, bai Ekialdeko Timorreko Krimen Larrietarako Panel Berezien (2000-2005), bai Kanbodiako Gorteetako Ezohiko Aretoen²¹ (2003-gaur egun) estatutuetan aurreikusi dituzte –zeinek bere modura bada ere– NZGren Estatutuak aurreikusten dituen eta, honakoan bezala, gizateriaren kontrako krimenak, gerra-krimenak eta/edo genozidio-krimenak eragin ditzaketen sexu-izaerako krimenetako asko. Hortaz, Timorren egin zituzten aurreikuspenak NZGn jasotako en oso antzekoak dira (behartutako esterilizazioa aipatu ez izana izan ezik); Kanbodian, aitzitik, sexu-indarkeriaren zer den askoz murriztagoa da eta bortxaketa soilik aipatzen du espresuki (Martin eta Lirola, 2013: 21)²².

21 Bi ekimenak izaera hibridoko areto bereziak dira, eta haien osaerak zein aplikagarria den zuzenbidea izaera mistoa dute (nazionala-nazioartekoa). Ekialdeko Timorren Krimen Larrietarako Panel Bereziek, 1999ko urtarril eta urri artean, Timorreko herriak Indonesiarekiko independentzia hautatu zuen autodeterminazio-erreferendumen ondoren, Indonesiako armadak eta miliziak eragindako giza eskubideen urraketak epaitzeko ardura zuten. Eta Kanbodiako Gorteetako Aparteko Aretoetan, 1975 eta 1979 artean, Kanputxea Demokratikoan (gaur egun Kanbodia) Khmer Gorrien erregimenean eragindako krimen larrien erantzule ziren goi karguak epaitu zituzten. Testu honetan aztertutako nazioarteko zigor auzitegien azterketa konparatua egiteko, ikusi Geiss eta Bulinckx (2006).

22 Epe ertainean, bada aukera bestelako *ad hoc* auzitegi berri batzuk –nazioartekoak edo hibridoak– sortzeko, gatazka armatuko edo gatazka armatu osteko testuinguruetako sexu-izaerako portaerak epaitzeko eskumena izango dutenak. Horren adibide bat da KED, non Kongoko eta nazioarteko hainbat GKEk hainbat urte daramatzaten nazioartean politikoki eragiten gatazka armatuaren testuinguruan eragindako krimenak epaituko dituzten areto hibrido espezializatuak sor daitezzen. Horren oinarria da 2010eko Giza Eskubideen aldeko Nazio Batzuen Goi Komisionatuaren txosten bat, zeinetan identifikatzen diren 1993 eta 2003 urteen artean Kongon eragindako gizateriaren kontrako krimen, gerra-krimen eta genozidio-krimen izan daitezkeen krimenak, eta haien egileak. Krimen horien artean daude Kongoko talde matxinatuek, atzerriko armadek eta Kongoko indar armatuek eragindako masa-hilketak, haurren kontrako erasoak eta sexu-indarkeria. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu hemen:

https://www.ohchr.org/documents/countries/cd/drc_mapping_report_final_en.pdf

3. Jurisprudentzia adierazgarria nazioartean

Aztertutako ohiko testuetako (bereziki, JNZA, RNZA eta NZGren Estatutuak) sexu-indarkeriari buruzko xedapenak jurisprudentzia-jarduera interesgarri eta oparo batekin batera eman dira. Horrela, nazioarteko *ad hoc* zigor auzitegiek modu zabalean interpretatu izan dute beren Estatutuak edukia, arauak aplikatzeko eta interpretatzeko. Gainera, hori horrela egin zen, hala egiteko adierazi zutelako Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluak eta Biltzar Nagusiak (McDougall, 2006)²³. Lan hori esker, sexu-indarkeriaren adierazpenaren pean jazargarriak diren portaerak argitzea ez ezik, hasieran aurreikusi zenaz harago, jarduera horietako batzuk nazioarteko krimenez hartzea lortu da (Gamarra, 2005) auzitegi bakoitzaren Estatutuak; eta horrekin batera, onespenik ezaren interpretazio laxoagoa egitea ere bai.

Horrela, auzitegi horien aurrerapausoek nazioarteko eta barneko gatazka armatuetako sexu-indarkeria ulertzea eta jazartzea gaingitu dute, eta haren modu eta adierazpenak ere landu dituzte, estatuetako barneko zuzenbidean ere eragitea lortuz (Bou, 2012:6). Jarraian, auzitegi horien ekoizpena eta atxiki dituzten berrikuntzak aztertuko ditugu.

23 Esaterako, “emakumeen atxiloketa eta bortxaketa sistematiko, masibo eta antolatuei” dagokienez (Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 798 Ebazpena (1992), Bosnia eta Herzegovina, 1992ko abenduaren 18a), eta zehazkiago, Biltzarrak honako hau adierazten duenean: “bortxaketa delitu gorrotagarria da eta [antzinako Jugoslaviarako] Nazioarteko [Zigor] Auzitegia bultzatzen du ustezko erantzuleak epai ditzan” (Nazio Batuen Biltzar Nagusiaren 48/143 Ebazpena (1993), antzinako Jugoslaviako gatazka armatuko eremuetan emakumeen kontrako erasoak eta bortxaketak, 1993ko abenduaren 20a, 10. kontuan hartuzkoa).

3.1. Ruandarako Nazioarteko Zigor Auzitegia

Ikusi dugun bezala, bortxaketa, gatazka belikoetan ere, legez kontrako portaeratzat hartzea ez da gauza berria Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioan edo Nazioarteko Zigor Zuzenbidean, eta, hala ere, ohiko edo ohiturazko ezein kidegotan ez dago portaera antijuridiko hori definitzen duten elementuen definizioirik (Bou, 2012). Horrela, auzitegiak berak izan dira gatazka armatuetako sexu-indarkeria espezifiko hori aintzat hartzeko irizpideak zehaztu dituztenak.

Horren ildoan, Ruandarako Nazioarteko Zigor Auzitegiak (RNZA) Akayesu²⁴ kasu ezagunean eman zuen epaiak ez du ekintzaren konfigurazio mekaniko edo deskribatzaile baten alde egiten, definizio holistiko baten alde baizik, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidean eta duintasunaren eta osotasun fisikoaren babesean oinarritua eta ohorearen kontrako krimenek erakusten zuten paternalismotik ihesi (Martin eta Lirola, 2013). Horrela, RNZAk zehazten duenaren arabera, “bortxaketa eraso mota bat da, eta eraso hori gauzatzean esku hartzen duten objektuen edo gorputz atalen deskribapen mekanikoa egiteak ez du krimenaren funtsezko elementuak atzematen uzten”²⁵ (RNZA, Akayesu, par. 597), tortura mota desberdinak jazartzen dituzten arauekin analogia eginez, ez baitute torturaren modalitate zehatz bat adierazten duen egintza bakoitza deskribatzea helburu. Hortaz, gerra kasuetan, bortxaketaren xedea bada “pertsona umiliatzea”, “beldurtzea”, “kontrolatzea” edo “suntsitzea”, biktimaren duintasunari egiten baitio eraso (*ibid.*).

Horrela, RNZAk honela definitzen du bortxaketa: “hertsapen egoeran dagoen beste pertsona bati eragindako sexu-izaerako inbasio fisikoa” (*ibid.*: par. 598). Definizio zabal edo generiko horrek elementu ezberdinei ekin eta kasuari egokitzea ahalbidetzen du, eta zuzenbidearen ikuskera androzentrikoegi batetik urruntzen da –sexu-organo maskulinoetan zentratua–, eta ez biktimaren beraren eraso sexualaren esperientzian bertan. Izan ere, bortxaketen inguruko eztabaida doktrinal eta jurisprudentzialak (nazioartekoak zein naziokoak) sarketan zentratzen dira sarritan; sarketa non egiten den eta non ez, hertsapenean edo biktimaren portaeran, eta Zuzenbidearen ikuskera maskulino batetik (Charlesworth, 2011; Hunter, 2012). Martin eta Lirolak (2013: 31) azaltzen dutenez, “gerra nahiz *ius in bello* bera oso fenomeno patriarkal eta androzentrikoak izan dira, non gizonak

24 RNZA, Prosecutor v. Akayesu, Judgment (ICTR-9640T) 1998ko irailaren 2koa.

25 Jurisprudentziaren gaztelaniazko hitzez hitzeko transkripzioak frantsesezko eta ingelesezko jatorrizko epaietatik itzuli ditugu, eta hortik, ondoren, euskarara.

rol protagonista eta emakumeak mendeko rola zuten”. Zuzenbidea sortzeko moduen gaineko kontrol maskulino horrek –bortxaketa barne, nahiz biktima gehien-gehienak emakumeak diren– horrenbeste indargabetzen du ikuspegia ezen, sarritan, biktimenzat ere harrigarria baita (Fileborn eta Vera-Gray, 2017; Nicolás Lazo, 2013).

Definizio holistiko hori berretsi egiten da Musema²⁶ kasuan; izan ere, jarraian aztertuko dugun JNZAREN Furundžija kasukoa bezalako definizio mekanikoari erantzunez, berretsi egiten du kontzeptualki itxiak ez diren nozioak hobeto egokitzen direla nazio barruko zein nazioarteko arauen eta pertzepzioen aldatetara. Beraz, bortxaketa kontzeptuaren bilakaera dinamikoa eta kontzepzio horrek Nazioarteko Zuzenbidearen printzipioen baitan duen lekua kontuan hartuta, aretoaren iritzi, kontzeptu-definizio irekia bortxaketaren definizio mekanikoa baino hobea da, halako definizioak hobeto egokitzen direlako zigor-arauen bilakaerara (RNZA Musema, par. 228).

Bortxaketaren definizioari buruzko alderdi horrez gain, RNZAREN lanak bestelako berrikuntza interesgarriak ere ekarri ditu. Lehenik eta behin, sexu-erasoak eta bortxaketak 1949ko Genevako Hitzarmenaren 3. artikuluko konunak debekatzen dituen tortura-egintza, tratu anker eta bestelako portaeratzat hartzea ekarri du, eta horri esker, errazago jazar daitezke (JNZA, Akayesu, par. 636). Bigarrenik, berebizikoa izan da bortxaketa genozidio-krimenari atxikirik hartzea, bai komunitate jakin batean jaiotzak eragozteko bideraturiko portaera denean (JNZA, Akayesu, par. 508; Musema, par. 158), bai gorputza eta gogoa²⁷ larri kaltetzerako bideratua denean nahiz eta kalte fisiko iraunkorrik ez eragin²⁸, bai identitate etnikoa zehaztera bideratua denean, aita biologikoaren –bortxaketaren egilearen– etniak definitua (McDougall, 2006: 338), Akayesu kasuan gertatzen den bezala (par. 507). Hirugarrenik, auzitegiak gerra- edo genozidio-krimenetan biktimaren balizko onespina onartzeari uko egin izanak ateak itxi dizkio biktimaren portaeraren arabera krimen horiek bidezkotzeari, Gacumbitsi kasuan gertatzen den bezala (par. 325)²⁹.

26 RNZA, *Prosecutor v. Alfred Musema*. Judgment (ICTR-96-13-T), 2001eko azaroaren 16koa.

27 RNZA, *Prosecutor v. Rutaganda*, Judgment (ICTR-96-3-T), 1999ko abenduaren 6koa.

28 RNZA, *Prosecutor v. Kayishema et al.*, Judgment (ICTR 95-1-T) 1999ko maiatzaren 21ekoa.

29 RNZA, *Prosecutor v. Silvestre Gacumbitsi*, Judgment (ICTR- 2001-64-T), 2004ko ekainaren 17koa.

Azkenik, laugarren, sexu-indarkeriaren kontsiderazioa zabaldu du. Bortxaketaren definizioa garatu nahi izanak ezkutatu egin du, batzuetan, bestelako sexu-indarkeria moduak badirela; araudietan presentzia oso txikia izanik, auzitegiarentzat lan-karga handiagoa izan da, hutsune hori ohiturazko iturriekin eta, sarritan, estatuetakoa barneko zuzenbidearekin bete behar izan baitute. Auzitegien portaera horren adibide da bortxaketak gizateriaren kontrako krimenez harago hedatzea, lehen esan dugun bezala, torturekin edo genozidioarekin identifikatu dituztelako (Gamarra, 2005: 14). Hori bera gertatu da, beraz, bortxaketaz gain, bestelako sexu-indarkeria modu batzuekin ere.

Aurrekoa oinarri hartuta, RNZAk honela definitu zituen sexu-erasoak (haren ustez, bortxaketa, horien adierazpen espezifikoa baino ez da): “hertsadurapean dagoen pertsona bati eragiten zaion sexu-izaera duen egintza oro” (RNZA, Akayesu, par. 598). Horrela, gaur egun estatuetakoa araudi askorentzat ere benetan berritzailea den hurbilpen bat eginez, RNZArentzat, “sexu-indarkeria ez da soilik gizakion gorputza fisikoki inbaditzea, eta bere baitan har daitezke sarketa eskatzen ez duten egintzak edo kontaktu fisikorik eskatzen ez dutenak ere” (*ibid.*, par. 688). Horri esker, horren barruan har daitezke, esaterako, behartutako biluztasuna edo soldaduen aurrean modu erotikoa dantzatzera behartzea. Orobat, Semanza³⁰ kasuaren Epaian (par. 345), RNZAk onartzen du “bestelako sexu-indarkeria modu batzuk ere (tortura, jazarpenak, esklabotza edo bestelako tratu ankerrak) jazargarriak izan daitezkeela, gizateriaren kontrako krimen gisa”, eta horrekin, sexu-indarkeria modu guztietara zabaltzen dio eskumena auzitegiari.

3.2. Antzinako Jugoslaviarako Nazioarteko Zigor Auzitegia

JNZAk, bere jurisprudentziarekin, bortxaketaren definizioaren inguruko eztabaida garrantzitsua piztu zuen, lehenengo RNZAk ezarritako definizioa onartu zuelako, ondoren, definizio horren inguruan zalantzak agertu zituelako eta, azkenik, aldatu egin zuelako. Bortxaketaren definiziorako lehenengo hurbilpenean, Akayesuko epaian emandako ikuspegi holistikoa berretsi zuen (Pou, 2012) eta ordezkoko beste definizio bat emateko aukera baztertu zuen³¹ (JNZA, Mucić *et al.* par. 479).

30 JNZA, *Prosecutor v. Anto Furundžija*, Judgment (IT-95-17/1-T), 1998ko abenduaren 10ekoa.

31 JNZA, *Prosecutor v. Mucić et al., alias “Čelebići”*, Judgment (IT-96-21-T), de 16 de noviembre de 1998.

Hala ere, bortxaketaren interpretazio hori aldatu egin zuten JNZAk bortxaketaren gaia jorratu zuen hurrengo aukeran (areto berberean, baina beste epaile batzuekin), eta hurbilpen holistikoa erabat iraultzeaz gain, definizio “mekaniko-fisiologikoa” (Martin eta Lirola, 2013: 58) zehaztu zuten. Izan ere, JNZaren Furundžija epaiak³² bestelako premisa bat jasotzen du: horren iritziz, Nazioarteko Zigor Zuzenbideak zehaztasun handiagoa eman behar du, eta ez Nazioarteko Zuzenbidean edo ohiturazkoan zuzenean oinarritzen ez den kontzeptu-definizioa (JNZA, Furundžijaç, par. 177). Hau da, *nullum crimen sine lege stricta* (JNZA, Furundžija, par. 177) zigor-printzipioaren aplikazio hertsuari jarraituz (Martin eta Lirola, 2013: 53), pertsona bat auzipetzeko beharrezkoa da aurretiaz definituriko portaera bat debekatzen duen arau espezifiko bat egotea. Argudiatze –tekniko eta hertsia– horrek Akayesu kasuko aurretiazko formula baztertzen du, zeinak ahalbidetu egiten zuen bortxaketaren kontsiderazioa uneko interpretazio-joerekin batera garatzea, eta bortxaketa definituko duten elementu egiazko eta zehatzen bila hasten da hainbat herrialdeetako zigor-zuzenbidearen azterketa konparatua eginez, eta tipo penal zehatz horren “izendatzaile komunak” (*ibid.* par. 178) aukeratuz bertan.

Azterketa horretatik ondoriozta daiteke barneko araudi gehienetan bortxaketa dela batez ere sexu-indarkeriaren modua (*ibid.*, par. 179), eta ezberdintasunak sakonak direla; esaterako, zenbait arauditan emakumeen kontrako bortxaketak soilik jazartzen dira, beste batzuetan sarketarako objektu bati edo beste bati erreparatzen diote, etab. (*ibid.* par. 180). Azterketa hori egin ondoren, harrigarria bada ere, aztertutako barne araudi ezberdinen arteko adostasunaren –ez benetan epaian frogatua– erakusle izan nahi duen definizio itxia proposatzen du. Hortaz, Furundžija kasuak irauli egiten du aurretiaz Akayesu kasuan RNZAk onartutako bortxaketaren definizioa, eta bortxaketa krimena gauzatzen duten honako elementu hauek definitzen ditu (*ibid.*, par. 185).

- “i) sexu-sarketa, arina bada ere,
 - a) biktimaren bagina edo uzkitik, bortxatzailearen zakilarekin edo hark erabilitako beste objekturen batekin egina.
 - b) biktimaren ahotik, bortxatzailearen zakilarekin;
- ii) biktimaren edo beste hirugarren pertsona baten kontra indarra, mehatxua edo hertsapena erabiliz”.

32 JNZA, *Prosecutor v. Anto Furundžija, Judgment* (IT-95-17/1-T), 1998ko abenduaren 10ekoa.

Horrela, JNZA portaera jazargarriak mugatzen eta “ustezko” ziurgabetasuna ezabatzen saiatzen da, barne-araudien arteko zenbait antzekotasunetan oinarrituta. Hala ere, hori dena oso zalantzazkoa da. Esaterako, aretoak berak onartzen du ahoa zulo “bortxagarri” gisa gehitu izana ez zela inola ere adostua izan, eta barneko araudien bilakaera konstanteari egokitzeko gehitu zuela (*ibid.*, par. 183-184). Hala da, ez dago nazioartean edo barneko zuzenbidean adostasuna (*opinio iuris*) aurkitzerik atxikitze horri indarra emateko (McDougall, 2006: 336). Hain zuzen, bortxaketaren arauetako definizioaren bilakaera konstante hori, gizakion duintasunaren kontrako eraso *per se* gisa hartzearen pertzepzioa zen Akayesu kasuko definizio holistiko eta zabala bidezkatzen zuena. Eta hala ere, JNZAk soilik onartzen zuen bilakaeraren kontsiderazio hori definizio gutxieneko eta estua egiteko: zakila ahoan sartzea. Hor dugu, Nazioarteko Zigor Zuzenbidearen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren interpretazio patriarkal, falokratiko (Martin eta Lirola, 2013: 13) eta androzentrikoaren (Lazo, 2013) beste lagin bat.

Segur aski nahita izan gabe, aretoak bortxaketa erasotzailearen tokitik ikusten du, eta sexu maskulinokotzat jotzen du, zakila aipatzen duenez. Halako definizio itxiak *alde batera* uzten ditu “[izaera sexualeko] hainbat portaera, potentzialki zigorgarriak direnak eta emakumeen bortxazkotzat jotzen dituztenak, baina, hala ere, legez, ez daudenak halakotzat hartuak” (Martin eta Lirola, 2013: 31). Definizio berri hori egintza materialari berari eta biktimaren borondatezko edo hertsapenezko elementuari buruzkoa da, eta JNZAREN geroagoko epaietan atxiki zen, Kuranac *et al.* epaian, kasu (par. 438)³³, eta paradigma aldaketa berretsi egiten da.

Beste alde batetik, Kunarac *et al.* epaia garrantzitsua da jazargarriak diren portaerak nabarmen gehitzen dituelako, biktimaren hertsapen-noziotik urrundu (aurreko definizioiko ii elementua) eta “autonomia sexualaren” kontrako erasoaren ideia atxikitzen du (*ibid.*, par. 440-441) funtsezko elementu gisa portaera horien jazarpena bidezkatzeko. Bortxaketaren definizioan, beraz, biktimaren onespenera buruzko eztabaida agertzen da; biktimaren autonomia sexuala eraso izateko hiru modu bereizten baitira, biktimak jarduera sexual horretan parte hartu nahi ez izanda ere. Kunarac *et al.* Epaiaaren arabera (*ibid.*, par. 442) honako hauek dira moduak:

“(i) sexu-jarduera indarrez edo biktimaren edo beste hirugarren baten kontra indarra erabiliko delako mehatxupearan gertatzen da:

33 JNZA, *Prosecutor v. Dragoljub Kunarac, Radomir Kovač and Zoran Vuković* (Sententia Kunarac *et al.*), Judgment (IT-96-23-T), 2001eko otsailaren 22koa.

- (ii) sexu-jarduera indarrez edo biktima bereziki zaurgarri bihurtzen duten edo uko arrazoitua adierazteko gaitasuna ukatzen dioten beste inguruabar espezifiko batzuen ondorioz gertatzen da;
- (iii) sexu-jarduera biktimaren onespenerik gabe gauzatzen da.

Furundžija kasuko bortxaketaren definizio itxi eta androzentrikoa atzerapausotzat har daitekeen arren, JNZAREN geroagoko ebazpenetan biktimaren onspena, autonomia sexuala eta borondate askea nozioak txertatu izanak gatazka armatuetako bortxaketen zigor-jazarpenaren ardatza berriro ere biktimarengan jartzea dakar; eta ikuspegi hori oso leunki doa sendotzen estatuetakoa barneko legeria eta praktika jurisprudenzialetan. Horrela, beraz, Kunarac *et al.* kasuan auzitegiak darabilen bortxaketaren definizioak Furundžija kasuko definizioaren “(i)” lehenengo atalean deskribatutako elementuak egokitzen ditu, baina ordeztu egiten ditu bigarren “(2)” ataleko indarraren eta hertsapenaren aipamenak, honako lerroalde honekin:

“sarketa sexual hori biktimaren onespenerik gabe gertatzen denean [...], horretarako onspena borondatez adierazia izan behar du, biktimaren borondate askearen emaitza gisa, eta inguruabarren testuinguruan ebaluatuta. Mens rea izango da aipatu sarketa sexuala gauzatzeko asmoa, eta biktimaren onespenerik gabe egiten dela jakitea” (Kunarac *et al.*, par. 460)³⁴.

Definizio hori osotasunean berretsi zuen JNZAREN Apelazio Aretoak (Bou, 2012: 14), eta gainera, azpimarratu zuen inola ere ezin dela baieztatu indarkeria edo hertsapena *sine qua non* betekizuna direla bortxaketa gertatzeko; izan ere, begi bistakoa da badirela indarkeriarik gabeko bortxaketak (Kunarac *et al.* par. 127-129)³⁵, baina estortsioa edo larderia³⁶ dago hertsapen metodo gisa, eta horrek onspen posiblea ezeztatzen du (Martin eta Lirola, 2013: 62).

Azkenik, RNZAK egin zuen bezala, JNZAK ere bertako estatuan krimen sexualei buruzko arau-garapenerik eza gainditu zuen sexu-indarkeria definituz eta horren adierazpide ugariak Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioan aurreikusitako krimenei atxikiz (Bou, 2012: 37-38). Hori oinarri hartuta,

34 *Mens rea* latinezko lokuzio bat da, eta “gogo erruduna” esan nahi du, eta zigorzuzenbidearen eremua legez kanpoko portaera bat gauzatzean, hori egiteko asmoa edo borondatea adierazten du.

35 JNZA, *Prosecutor v. Dragoljub Kunarac, Radomir Kovač and Zoran Vuković* Judgment (IT-96-23 & IT-96-23/1-A), 2002ko ekainaren 12koa.

36 JNZA, *Prosecutor v. Kvočka et al.*, Judgment (IT-98-30/1), 2001eko azaroaren 2koa, par.: 559).

esaterako, Furundžija kasuan, Auzitegiak azpimarratu zuen, sexu-indarkeriaren barruan funtsezko krimen gisa bortxaketaren definizio mekanikoaz gain,

“Nazioarteko Zigor Zuzenbidearen arauak bortxaketa ez ezik, bestelako sexu-indarkeria larri guztia ere zigortzen dute, benetako sarketarik egon ez arren. Beraz, esan daiteke debekatuta daudela biktima umiliatuz edo gutxietsiz, pertsonaren osotasun fisiko edo moralari eragiten dioten eta mehatxu, larderia edo indarrez eragiten diren indarkeria larri guztiak (JNZA, Furundžija, par. 688).

Horren ildoan, JNZAk zehazten du “indarkeria sexualak bortxaketa baino nozio zabalagoa hartzen du eta sexu-esklabotza edo jazarpena bezalako krimenak ere hartzen ditu barnean” (JNZA, Kvočka: par. 180), eta jarduera horien artean NZGren Estatutueta jasotzen diren motez gain, aipatzen ez diren eta kategoria horietan sartzen ez diren beste batzuk ere badaude, hala nola: behartutako ezkontzak, sexu-mutilazioa, behartutako esterilizazioa edo behartutako abortua. Izan ere, sexu-esklabotza gizateriaren kontrako krimentzat hartu zen –artean kodifikatu gabe egon arren–, sexu-indarkeria “biktimagileek biktimak jabetzan” zituztelako egoerarekin lotu zelako (JNZA, *Kunarac et al.* apelazioko epaia, par. 251-253). Aurretik, Auzitegiak argi utzia zuen esklabotza, norbait saldu eta erosteko gaitasuna eta haren bizitza, lana eta –testu honi dagokionez– haren sexualitatea edo autonomia sexuala kontrolatzeko gaitasuna esklabotza mota zehatz bat zirela (JNZA, *Kunarac et al.* epaia, par. 543), jazarria izan behar zuela eta horren definizioa oinarritzat hartuko zela NZGn aurreratzean krimen horren elementuak kodifikatzeko. (Pou, 2012: 80). Beraz, Auzitegiak sexu-indarkeriaren modu berri gisa egituratu zuen portaera hori, baieztatu zuelako “esklabotza, sexu-esplotazioan oinarritutakoa barne, bortxaketaz bestelako krimena dela” (JNZA, *Kunarac et al.* apelazio epaia, par. 186).

3.3. Nazioarteko Zigor Gortea

Sexu-indarkeria gisa definituriko jarduera berriak NZGren Estatutuan espresuki txertatu izana elementu positibotzat har daiteke eta hala hartu behar da, eta, aldi berean, portaera materialen garapenak segurtasun juridikoa eskaintzen dute, egundaino izan den gorputz juridiko “sexoespezifikoa” zabalena sortuz (Bienvenu Haba eta Lafontaine, 2017: 76). Hala ere, NZGren araudiak eta jurisprudentziak bortxaketaren definizioaren inguruko bide mekanikoan ekiten jarraitzen dute, eta gainera, krimen honen kasuan jazargarriak diren portaeren deskribapen zehatzak

bortxaketatza kalifika daitezkeen portaerak minimizatzea dakar. Hala gertatzen da Katanga³⁷ kasuaren epaian; non NZGk dioen bortxaketatza hartzeko “edozein kasutan gorputzaren atalen batean organo sexual baten sarketa gertatu behar du, azalekoa bada ere, edo baginan edo uzkiean sarketa gertatu behar du objekturen batekin edo gorputzeko beste edozein atalekin” (par. 963); hitzez hitz “Krimenen elementuak” dokumentuko deskribapenari jarraikiz, azaldu dugun bezala, Gortearentzat nahitaezkoa ez dena.

Onespenik ezari dagokionez, NZGak berretsi egiten du aurreko nazioarteko zigor jurisprudentzia eta ebatzen du “ez duela frogatua izan behar” (NZG, Katanga kasua, par. 965), hertsapenari buruz aurreikusitako eta zehaztutako inguruabarretako edozeinek berez dakartelako onespenik eza gatazka armatuetan. Gogoan izan behar dugu, edozein kasutan, ebatzi zutela Germain Katanga auzipetua ez zela sexu-indarkeriaren erantzule.

Bere Estatutuak aukerak eskaintzen dituen arren, NZGk emaitza eskasak erakutsi ditu egundaino krimen sexualen kontrako borrokan. Hori aurreratu zuen jada lehenengo epaian (NZG, Lubanga kasua, 2012³⁸), NZGren Fiskaltzak adingabeen errekrutatze akusazioa egin zuen baina ez zituen akusazioan sartu izaera sexualeko krimenak, eta horrek larriki eragin zion prozesuaren emaitzari. Andrea Forerek (2013: 54) dioen bezala, akusazioa adingabeen errekrutatzerantz murriztea eta sexu-indarkeria baztertzeari ziren azken epaian eragin zutenak; esaterako, zigorraren inguruko erabakietan –nahiko txikia izan zen–, edo erreparazioaren ingurukoetan, ezin izan baitziren sexu-indarkeriaren biktiman erreparazio integraleko programetan sartu. Ez da ospatzekoa ere NZGk berezko identitadedun krimen gisa behartutako ezkontzak jazartzeari uko egitea (jarraian ikusiko dugun bezala, SLABn bai egin zen); sexu-esklabotzaren barruko adierazpen gisa mantenduz (NZG, Katanga kasua: par. 977-978 eta Lubanga kasua: par. 36), portaera hori modu espezifikoa garatzeko eta definitzeko aukera galdu da (Martin eta Lirola, 2013: 73).

Azkenik, Bemba kasuko³⁹ lehenengo instantziako zigor-epaian, NZGk eutsi egiten die “Krimenen elementuak” dokumentuan jasotzen diren bortxaketaren definizioari eta onespen faltari buruzko xedapenei, *ad hoc* auzitegien

37 NZG, *Prosecutor v. Germain Katanga*, Judgment (ICC-01/04-01/07), 2014ko martxoaren 7koa.

38 NZG, *Prosecutor v. Thomas Lubanga Dyilo*, Judgment (ICC-01/04-01/06-2842), 2012ko martxoaren 14koa.

39 NZG, *Prosecutor v. Jean-Pierre Bemba Gombo*, Judgment (ICC-01/05-01/08), 2016ko martxoaren 21ekoa.

jurisprudenziaren interpretazio-oinarria hartuta, bestelako garapenik eskaini gabe (par. 99-109). Hala ere, egia da bortxaketa gizateriaren krimen gisa eta gerra-krimen gisa zigortzen dituela (par. 694), tipo penal horiek bere Estatutuan izan duten garapena baliatuz eta auzitegi horretan jurisprudenziako mugarri bat ezarriz horrekin.

Orobat, “Bemba kasuak (par. 197-198) lehenengoz ematen du “agintea izateagatik edo hierarkian goragoko kargua duten” pertsonak gatazka armatuetan eragindako sexu-indarkeriagatik zigortzeko aukera; bai gertatzen zenaren berri zutelako bai jakinaren gainean egon eta hori saihesteko neurriak hartu behar zituztelako (Mabanga, 2016; Bienvenu Haba eta Lafontaine, 2017), betiere kasuak banaka aztertuta. Hala ere, aurrerapauso hori zapuztu egin da akusatua errugabe deklaratzeko apelazio-erabakiarekin (NZG, Bemba kasua apelazioan⁴⁰) froga materialei eta zirkunstantzialei zorrotasuna ezarri ondoren, zeina “gehiegizkotzat jo daitekeen, Gortearen eskumeneko krimenen ezaugarriak kontuan hartuta” (Quesada, 2018: 10). Gainerap, prozesura judizial honi egindako kritiken artean, Bemba gaia ezaguna da behartutako biluztea izaera sexualeko krimen gisa kalifikatzeko atzerapausoa eman izanagatik (Bienvenu Haba eta Lafontaine, 2017: 77), horrekin, gatazka armatuetako sexu-indarkeria jazartzeari dagokionez, orain arte nahiko etsigarria izan den NZGren jurisprudenzia bat itxiz.

3.4. Sierra Leonako Auzitegi Berezia

SLABk, antzinako Jugoslaviako eta Ruandako *ad hoc* auzitegien jurisprudenziaren ondoren eta Erromako Estatutua onartu ondoren sortu zutelako hain zuzen, arretan handiagoa jarri zion sexu-indarkeriari bere Estatutuan, nahiz eta haren ekoizpena nabarmen txikiagoa izan den.

Bortxaketaren krimenari dagokionez, hasieratik eusten die JNZArek definizioei (Bou, 2012: 20), haren deskribapen mekanikoa eginez, nahiz eta bai hartu zuen kontuan bortxaketa-ahalegina eta 14 urtetik beharkeko onespina onartzerik eza, eta onespinen ardatza autonomia sexuala dela babesten du (Armed Forces Revolutionary Council epaia: par. 693-694)⁴¹.

40 NZA, *Prosecutor v. Jean-Pierre Bemba Gombo*, Judgment (ICC-01/05-01/08 A), 2016ko ekainaren 8koa.

41 SLAB, *Prosecutor v. Alex Tamba Brima, Brima Bazzy Kamara and Santigie Borbor Kanu (Sentencia Armed Forces Revolutionary Council)*, Judgment (SCSL-04-16-T), 2007ko ekainaren 20koa.

Orobat, eta gaiari buruzko tratatuetan (NZGren Estatutua, kasu) dagoeneko ikus daitekeen jurisprudentzia-nozioa sendotuz, SLABek argudiatzen du gatazka armatuetan onespenerik eza ziurtzat jo daitekeela, egoera horietan hertsapena “ia unibertsala” baita⁴².

Bestelako sexu-indarkeriari dagokionez, bortxaketaz gain, bestelako ekintza jazargarri batzuk ere jaso zituzten SLABren Estatutuan, behartutako esklabotza, esaterako. Eta txertatze hori baliatu zuen nozioa garatzeko eta jardun zehatz⁴³ hori jazartzeko, baina horrez gain, behartutako ezkontza ere sartu zuen krimen sexualen beste mota bat gisa. Hortaz, eta hasieran erreparatu batzuk izan arren, behartutako ezkontza eta sexu-esklabotza bereizi zituen, eta honela deskribatu zuen egoera:

“erasotzaileak, bere hitzen edo jokabidearen bidez, edo haren erantzukizunpean dauden beste batzuen bidez, indarrez edo hertsaduraz behartzen du pertsona bat bere ezkontide gisa zerbitzatzeko eta horren ondorioz, biktimari sufrimendu larria, eta kalte fisiko, mental edo psikologikoak eragiten dizkio”⁴⁴.

3.5. Giza Eskubideen eskualdeko Auzitegiak

Giza eskubideen eskualdeetako organo judizial bakoitzak sexu-indarkeriari buruz azaldu duena zehatz-mehatz aztertzerik ez dugunez, atal honetan adibide esanguratsu batzuk aipatuko ditugu: Gogoan izan eskualdeko auzitegi hauetan Estatuak zigortzen direla, eta ez krimenen erantzule diren pertsonak (nazioarteko zigor auzitegietan gertatzen den bezala). Hala ere, hori ez da oztopo auzitegi horietan ere jazargarriak diren portaerak eta haien definizioak ere Nazioarteko Zigor Zuzenbidean oinarritzeko, segurtasun juridiko handiagoa eskainiz horrela.

42 SLAB, *Prosecutor v. Charles Ghankay Taylor*, Judgment (SCSL-093-01-T), 2012ko maiatzaren 18koa, par.: 416.

43 SLAB, *Prosecutor v. Issa Hassan Sesay, Morris Kallon y Augustine Gbao* (Sentencia Revolutionary United Front), Judgment (SCSL-04-15-T), 2009ko apirilaren 8koa, par.: 157-161.

44 SLAB, *Prosecutor v. Alex Tamba Brima, Brima Bazzy Kamara and Santigie Borbor Kanu* (Sentencia en apelación Armed Forces Revolutionary Council), Judgment (SCSL-04-16-T), 2008ko otsailaren 22koa, par. 196.

3.5.1. Giza Eskubideen Sistema Interamerikarra

Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak (GEGI), sexu-indarkeriaren gaia tratatzeko azkeneko aukeran (*Atenco v. Mexiko kasua*)⁴⁵, adierazi du hori tortura-krimen izateko arrazoia izan daitekeela (GEGI, 2018, par. 193), hurrengo arrazoia dela eta:

“sexu-indarkeriak pertsonen balioak eta bizitza pribatuko funtsezko alderdiak urratzen ditu, haien bizitza sexualean sartzen da eta sexu-harremanak norekin eduki askatasunez erabakitzeko eskubidez ezeztatzen du, erabaki pertsonal eta intimoenen eta gorputzaren funtzio oinarritzkoen gaineko kontrola erabat galduz” (*ibid.*, par. 179).

Horren ildoan, GEGIk erabiltzen duen sexu-indarkeriaren definizioa Nazioarteko Zigor Zuzenbidearen definizio mugatu eta mekanikoa baino nabarmen zabalagoa da. GEGIren iritziz,

“sexu-indarkeria pertsona baten kontra eta haren onespentik gabe gauzatzen diren sexu-izaerako egintzek osatzen dute, gorputzaren inbasio fisikoa izateaz gain, sarketarik gabeko eta, bai eta, kontaktu fisikorik gabeko egintzak ere sar daitezke bertan” (*ibid.*, par. 182).

GEGIk desberdintzat hartzen ditu emakumeen kontrako bortxaketa eta gizonen kontrako bortxaketa honako hau adierazten duenean: “sexu bortxaketa emakumeen kontrako indarkeriaren forma paradigmatico bat da, eta haren ondorioak, biktima bera gainditzen dute” (*ibid.*, par. 184), eta horrek gai honetan “beharrezkoa den genero-ikuspegia” ezartzeko ahalegina –ez oso egokia– dirudi (Poyatos, 2018; Avilés, 2017).

Atencoko krimenak ez ziren gatazka armatu adieraziriko egoera batean gertatu, errepresio soziopolitikoko egoeran baizik; beraz, GEGIk modu berri batean erabiltzen ditu gatazka armatuetako sexu-indarkeriaren definizioak, torturengatik zigorrari gehituz, honako hau azpimarratzeko:

“kasu honetan, sexu-indarkeria ez zuten erabili estatuko agenteek kontrol, nagusitasun edo botere-inposaketarako taktika edo estrategia gisa. Izan ere, [...] sexu-indarkeria jendaurrean aplikatu zen, lekuko askoren

45 GEGI, *Caso mujeres víctimas de tortura sexual en Atenco v. México*, 2018ko azaroaren 28ko epaia.

aurrean, ikuskizun makabro eta beldurtzaile gisa, non emakumeen gorputzei eragiten zieten entzutera eta, kasu batzuetan, ikustera behartu zituzten gainerako atxilotuak” (GEGI, 2018, par. 202).

Era berean, GEGIk gehitu zuen hori legez kontrakotzat ez ezik, Estatuaren erantzukizunaren astungarritzat ere jo zen.

“honako kasu honetan, manifestariak erabilitako protesta-moduak erreprimitzeko eta desegokiak zirela agerrarazteko mezua helarazteko tresna gisa instrumentalizatu zituzten atxilotutako emakumeen gorputzak poliziek. Gauza bihurtu zituzten emakumeak, aginte-eskumenaren aurrean disidentzia erakusten zuten ahotsak umiliatzeko, beldurtzeko eta ikaratzeko” (*ibid.*, par. 204).

Giza Eskubideen Sistema Interamerikarraren markoan oraindik, Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrak eduki zuen aukera ordurako gatazka armatuetako sexu-indarkeriaz aritzeko Raquel Mejía Peruren kontrako gai ezagun hartan⁴⁶. Kasu horretan, sexu abusua “biktimaren osotasun fisiko eta mentalaren bortxaketa izateaz gain, haren duintasuna nahita eragindako iraina dela” jaso zuen (GEBI, 1996, par. 99); beraz, egintza hura, azkenean, biktimaren intimitatearen kontrako tortura eta bortxaketatzat hartua izan zen (Villanueva, 2006: 421).

3.5.2. Giza Eskubideen Europako Auzitegia

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (GEEA) egindako bortxaketaren definizioaren hurbilpena bertako araudietatik (bereziki, Giza Eskubideen Europako Hitzarmena-GEEH eta Europako Kontseiluko kide diren Estaturen barne zuzenbidea) eta Nazioarteko Zuzenbidetik dator, batez ere Nazioarteko Zigor Zuzenbidetik, nahiz eta GEEAk ez dituen, normalean, gatazka armatuetako sexu-indarkeriako kasuak hartzen. Hala ere, bere jurisprudentzia interesatzen zaigu, hainbat arrazoiengatik. Lehenik eta behin, adierazi izan du ziur, nahiz eta araudian ez dagoen espresuki horrela mugatua, bortxaketa bat gertatzen dela eta jazarri egin behar dela “onespenik eza bortxaketa eta bestelako sexu-indarkeriak gertatzeko elementutzat hartzeko joera unibertsalari” jarraikiz (GEEA, M.C. v. Bulgaria: par. 163)⁴⁷. Biktimak

46 GEBI, *Caso Raquel Martín de Mejía v. Perú*, Txostena zk. 5/96 (zk° 10.970), 1996ko martxoaren lekoa.

47 GEEA, M.C. v. Bulgaria, Judgment (n° 39272/98), 2003ko abenduaren 4koa.

onespena frogatu beharra desagerrarazten duen eta indarkeria fisikoaz harago hertsapenak hainbat eta askotariko adierazpenak dituela onartzen duen hurbilpen honetatik, nolabaiteko genero-ikuspegia barneratzen duen justizia emateko modura hurbiltzen gara.

Indar polizialek edo Estatuaren ordezkariak eragindako bortxaketa torturatzat kalifika daiteke GEEBren 3. artikulua arabera. Hori oinarri hartuta,

“emakume atxilotu bat Estatuko agente batek bortxatzea tratu txarren modu bereziki larri eta gorrotagarritzat hartu behar da, kontuan hartu behar baita erasotzaileak nolako erraztasuna izan dezakeen biktimaren zaurgarritasunaz eta urrakortasunaz abusatzeke” (GEEA, Aydin v. Turkia, par. 83)⁴⁸.

Nagusitzeko modu horien definizioa aztertu dugun nazioarteko *ad hoc* zigor auzitegiaren ekoizpen interpretatzailean oinarritzen da, eta hemen, beste kausa batzuetara hedatu da, non sexu-indarkeriaren erantzuleak agente publikoak diren, halakotzat jarduten.

GEEAren ikuspuntutik, bortxaketak zerikusi handiagoa du biktimaren beraren bizipenarekin hura deskribatuko duten elementu materialekin baino. Pertsonaren borondate eta autonomia sexualik gabe, haren osotasun fisiko eta moralari, haren duintasunari eragiten zaio kaltea. Auzitegi honek adierazten duen bezala,

“biktimak bortxaketa nola antzematen duen hobeto ulertzen da gaur egun, eta onartzen da, sarritan, sexu-indarkerien biktimek –bereziki emakume gazteek– ez diotela erresistentzia fisikorik eragiten erasotzaileari, hainbat eta hainbat arrazoiengatik” (GEEA, M. C. v. Bulgaria, par. 164).

Biktiman zentratutako Zuzenbidearen pertzepzio honek “gizarteak benetako berdintasunerantz eta norbanako ororen autonomia sexualaren errespeturantz doazela” adierazten du (*ibid.*, par. 165).

48 GEEA, Aydin v. Turkia, Judgment (n° 23178/94), 1997ko irailaren 25eko.

4. Sexu-indarkeriari buruzko nazioarteko araudi eta jurisprudentziaren eragina Estatuetakoko barne-auzitegietan

Giza Eskubideen, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren eta Nazioarteko Zigor Zuzenbidearen araudi- eta jurisprudentzia-iturriek eragin handia izan dute Estatuetakoko barne jurisdikzioetan gatazka armatuetan eragindako krimen sexualen aurrean. Testu honetan dagoeneko aztertu ditugun aurrerapauso batzuk apurka-apurka ari dira barneratzen nazioetako araudi eta jurisdikzioetan. Kasu horietan ikusi dugu “zigor-zuzenbidearen eta Nazioarteko Zuzenbidearen printzipioen konbinazio bat. Norbanakoaren erantzukizunaren eta portaera jakin baten gaitzespenaren ideia nagusia [...] zigor-zuzenbidetik dator (Cortes, 2012: 66), baina nazioarteko arau batzuetatik eratorria da.

Horrela, Estatu bateko organo judizialek gatazka armatuetako sexu-indarkeriako kasuei aurre egiten dietenean, nazioarteko ekoizpenaz eta jurisprudentziaz baliatzen dira. Hori hainbat modutan gertatzen da, araudi bakoitzak nazioarteko arauak jasotzeko dituen mekanismoen arabera; baina barneko organoentzat gai horri buruzko erreferentzia gisa eta, nola ez, biktimentzako segurtasun juridikorako mekanismo gisa ikus daiteke. Atal honetan, hainbat estatuk ildo horretan izandako esperientzia azalduko dugu labur.

4.1. Guatemala

Guatemalako Sepur Zarco kasua gatazka armatuetan sexu-indarkeria jazartzearen bilakaeraren eta nazioarteko jurisprudentziak Estatuako barneko araudiak osatzeko utzitako arrastoaren adibide argia da; izan ere, kasu horretan gertatu bezala, estatuak gizateriaren aurkako krimen kalifikazioa erabil dezakete (Ríos eta Brocante, 2017: 89-90). Orobat, Estatuak emakume indigenen kontra eragindako sexu-indarkeriaren adibide ere bada, “gatazka

armatuarekin larriagotu zen indarkeria normalizatuaren “*continuum*” baten barruan” (Velásquez Nimatuj, 2019: 88).

Kasu horretako⁴⁹ epai erabakigarrian genero-ikuspegia sartu zuten sexu-indarkeriaren azterketan, honako hau dioenean: “emakumea umiliatu egin zuten, komunitatearen testuingurua suntsitzeko eta haustura soziala eragiteko” (par. 475), eta

“ehun komunitarioa hausteko eta haien ugaltze-gaitasuna suntsitzeko diseinu estrategikoa zuen. Errutina bati jarraitu zioten, eta diziplina-egintzak ondoren; ez zen soilik soldaduen behar sexualak asetzea; bortxaketa sexuala gerraren parte izan zen. Epailak uste dugu Sepur Zarcoko emakumeen kasuan, modu jarraituan pairatu zituztela bortxaketa sexualak, eta etxeko esklabotza ere ezarri zieten” (par. 488).

Epai horretan nabaritu egiten da sexu-indarkeriari buruzko Nazioarteko Zigor Zuzenbidearen eta Giza Eskubideen Gorte Interamerikarraren herentzia (Rios eta Brocante, 2017). Kasu horretan, nazioartetik hartutako kategoria juridikoak txertatzeak aukera eman zuen gatazka-egoeretan emakumeen kontra sexu-indarkeria erabiltzearen gaiari hobeto heltzeko, ez gerra-krimen “soil” gisa, baizik eta komunitate oso baten suntsipen soziala eragiteko jardun antolatu gisa.

Amadine Fulchironen (2017: 74) dioen bezala, gatazka armatu honetan interesatzen da sexu-bortxaketa genozidio gisa ere aipatzea –hori ez zen hala jaso aipatutako epaian-, “krimen sexualak intimitatearen eremutik ateratzeko eta emakumeen bizitza suntsitzera bideraturiko gerrako politika nagusi gisa ikusarazteko”. Izan ere, emakume indigenei sexu-erasoak eragin zizkieten emakume zirelako eta maiak zirelako –gatazkan zehar, sexu-bortxaketaren biktimen % 88,7 izan ziren, Guatemalako Argitze Batzordearen datuen arabera–, talde espezifiko bat desagerrarazteko asmo argiarekin. Paradoxikoki, komunitate horietan oso sendotuta zegoen patriarkatuak suntsipen-prozesua azkartu zuen, komunitateek eurek berbiktimizatu eta estigmatizatu egin zituzten sexu-indarkeria pairatu eta bizirik irten ziren emakumeak, eta nabarmen zaildu zuten pairatutako kaltearen erreparazioa.

49 Guatemala. Zigor Epaietarako Lehenengo Auzitegia, Sepur Zarco kasua, Epai (C-01076-2012-00021), 2016ko otsailaren 26koa.

4.2. Argentina

Sexu-indarkeriagatiko auziei dagokienez, Argentinako kasuaren berezitasuna da ez dagokiola zuzenean gatazka armatuko egoera bati; diktadura militarrek iraun zuen urteetan eragindako estatu-terrorismoaren barruan gertatutako sexu-indarkeriari dagokio. 1960 eta 1970eko hamarkadetan emakumeen ahalduntze-prozesuaren kontra bideraturiko estatuaren politika izan zen, “Estatu-terrorismoak balio tradizioaletara itzultzea proposatu baitzuen” (Rita Villegas, 2018: 256). Estatu-politikaren ikuskera horrek dakar

“atxilotze-zentro klandestinoetan emakumeek pairatu zuten indarkeria sistematikoa espezifikoa, sistematikoa eta planifikatua izan zela. Errepresio-metodoak desberdinak izan ziren emakumeentzat, torturez gain, sexu-indarkeria [...] pairatu zuten errutinaz eta denek, beren genero-identitateetan diziplina ezartzeko helburu nagusiarekin” (*ibid.*: 257).

Gatazka armatuko egoera ez zen arren, gerra-egoeretako nazioarteko jurisprudentzian aztertu ditugunen antzeko praktikak erabili zituen diktadurak. Hortaz, diktaduran zehar, atxilotze-zentro klandestinoetan emakumeei pairarazi zizkieten sexu-indarkeria moduen artean testu honetan aztertu ditugunetako asko daude; hala nola: behartutako biluztea, postura eta tratu umiliagarriak, sexu-esklabotza, bortxaketa, sexu-organoetan tormentua aplikatzea, nahi ez ziren haurdunaldiak edo erditzea behartzea (Álvarez, 2019: 60).

Praktika horiek oso larriak izan arren, herrialde horretan izandako jazarpen judizialak ez du berretsi berezko izaera juridikoa duten portaerak direnik, hots, halakotzat jazarri eta aztertu behar diren portaerak, berariaz eta banaka, alegia. Argentinako justizia planteamendu hori zuzentzen joan da, eta gaur egun badira paradigma aldatzeko beharra ikusten duten auzitegiak. Esaterako, Juana Agostina Aliendro eta beste batzuk kausaren epaian (2013: 12), auzitegiak berak dio gaiari buruzko nazioarteko arauak eta jurisprudentzia ikusita, “nazioko auzitegiek kontzientzia hartu eta estatu-terrorismoaren esparruan gauzatutako sexu-delituak beste tormentu modu bat balira bezala hartzeko joera baztertu beharko lukete; figura horren barruan kalifikatu ohi dira legez kanpo askatasuna ukatu zitzaizen pertsonen jasan behar izan zituzten torturak, irainak eta mendekotasunak”⁵⁰. Horrela,

50 Argentina. 960/11 auziaren epaia. Aliendro, Juana Agostina eta beste batzuk. Pertsonen behartutako desagerraraztea, etxean indarrez sartzea, askatasuna legez kanpo ukatzea, tormentuak, etab. Inputatua Musa Azar eta beste batzuk. 960/11 kausa, Santiago del Esteroko arlo Kriminaleko Ahozko Auzitegi Federala, 2013ko martxoak 5, 12. or.

nazioarteko corpus juridikoa estatu-politikaren testuinguruan txertatzean, krimen sexualak gizateriaren kontrako krimentzat hartzen dira eta, beraz, preskribaezinak dira.

Diktaduran zeharreko sexu-indarkeriaren jazarpena berandu gauzatu da Argentinan. Eta hori arazo izan da biktimen erreparazioari dagokionez; inguruabar horietan genero-indarkeria normalizatu egin du, eta, Maria Cecilia Rita Villegasen arabera (2018: 262-264), estereotipo sexistak sendotzen eta erregimen militarren osteko testuinguruan ere emakumeen indarkeria normalizatzen lagundu du.

4.3. Kolonbia

Kolonbiako gatazka armatuan sexu-indarkeriaren kontsiderazioa barneko zigor zuzenbidearen, Nazioarteko Zigor Zuzenbidearen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren arabera azalduko da hemen. Finean, sexu-indarkeriako delituak gerra-krimen, gizateriaren kontrako krimen ala biak batera izan diren egiaztatu nahi da. Urratsak gutxi eta mantsoak diren arren, jurisprudentzian egindako ekarpen batzuek, badirudi, nazioko prozesu judizialak nazioarteko esperientziara hurbiltzen ari direla.

Nazioarteko Zigor Gorteak berak, herrialde honi buruzko txosten batean (NZG, 2019, par. 90-91) adierazten du funtsezko oinarria dagoela NZGren Estatutuaren 7 eta 8. artikuluetan jasotzen diren gizateriaren kontrako krimen eta gerra-krimentzat har litezkeen bortxaketak eta bestelako sexu-indarkeriako egintzak gauzatu direla uste izateko. Txosten horretan bertan, ohiko barneko instantzia judizialek edo Bakerako Jurisdikzio Bereziak (BJB)⁵¹ gerrillari taldeetako kideek, talde paramilitarretako kideek eta Kolonbiako indar armatuetako kideek biztanle zibilen kontra eragindako izaera sexualeko egintzak onartu dituzten kasuak biltzen dira (*ibid.*, par. 110-118).

Horrela, adibide gisa, Bogotako Auzitegi Gorenaren lehenengo epaia genero-delituekin loturiko Justizia eta Bakea Aretoan, 2011n⁵², barneko

51 2016ko Bake Akordioen harira, trantsiziozko justiziarako tresna gisa ezarritako organo jurisdikzionala.

52 Kolonbia. Bogotako Esparru Judizialeko Auzitegi Gorenaren epaia. Justizia eta Bake Aretoa. Magistratu txostengilea: Léster María González Romero, 2011ko abenduaren lekoa, José Rubén Peña Tobón, Wilmer Morelo Castro eta José Manuel Hernández Calderasen postulatuen kontra.

gatazka, gatazka armatu gisa kalifikatu zuen (par. 1) eta barneko nahiz nazioarteko araudia eta jurisprudentzia bere postulatu eta ondorioen oinarri juridiko gisa erabiltzea erabaki zuen (par. 55-111). Epai horrek Nazioarteko Zuzenbideko definizioak berezkotzat atxiki zituen eta “Autodefensas Unidas de Colombia (AUC) talde paramilitarrek zenbait kide zigortu zituen gerrakrimenen eta gizateriaren kontrako krimenen delituengatik, bigarren krimen kategoria hori barneko zuzenbidean kodifikatuta ez zegoen arren (Cortes, 2012: 81).

Aretoak lehenengo epai hori baliatu zuen gatazkako sexu-indarkeriaren kontrako borrokaren oinarriak finkatzeko, “zigorgabetasuna borrokatzeko eta berme-betebeharrak ezartzen duen zigortzeko betebeharra betetzeko, haiek ikusarazteko beharra onartzen duenean. Horretarako, beharrezkoa da delitu mota hori genero-ikuspegitik aztertzea” (par. 84-85). Nazioarteko iturri jurisprudentzialak aipatuz, besteak beste JNZaren eta RNZaren epaiak, aretoak sexu-delituen larritasun berezia azpimarratzen du, “pairatzen dituzten pertsonen duintasunari eta gizarte-ehunari zuzenean eraso egiten dioten urratze larriak” direlako (par. 96).

Hala ere, Marco Tulio Perez Guzman, “El Oso”, besteak beste, mota guztietako ehunka sexu-erasoren erantzulea den paramilitarraren kasuan bezala (Sánchez, 2011: 57-197), zigorgabetasun-sentipenak eta biktimen sufrimenduaren onarpenik ezak, indarrean dagoen zuzenbidea aplikatzeko eragozpenak eta trantsiziozko justizia-prozesuen mugapenak islatu dituzte, bai eta biktimen erreparaziorako eta izu sexualak eragiten duen traumatik berroneratzeko eragozpenak ere. Paramilitar horrek ukatu egin zuen sexu-indarkeriako bere ekintzen erantzukizuna Bakerako Jurisdikzio Bereziaren aurrean; beraz, 2014an Justiziari eta Bakeari buruzko Legearen (2005) onuretatik kanpo geratu zen. Kasua justizia arruntera eraman zen, eta, azkenean, 2018an kondenatu zuten 24 urteko espetxe-zigorrera, auzitegiak gizateriaren aurkakoak bezala kalifikatu zituen sexu krimenengatik⁵³.

Kolonbiako gatazkaren alderdi guztietan egon da sexu-indarkeria, eta ohiko jarduna izan da bertako eragile armatu gehienek kasuan, emakumeen (gehien bat) gorputza gudu-zelai gisa erabili baitute. Gertaera horien aurreko zigorgabetasuna oso handia izan da, zigor-justiziara iristea oztopoz beteta dagoelako, besteak beste: fiskaltzaren prestakuntza txikia, administrazioen arduragabekeria, borondate politikorik eza, feminitatearen ikuspegi

53 Sincelajoko Zirkuitu Espezializatuko (Sucre) Zigor Epaitegiaren epaia.

tradizionala, prozesuaren zama biktimarengan –eta ez biktimagilearengan-jartzea eta, nola ez, barneko zein nazioarteko araudiaren aplikazio desegokia (*ibid.*: 383-385).

4.4. Peru

Peruko barne-gatazkan zehar izandako sexu-indarkeria orokortuaren lekukotzek ez dute herrialdeko agintari judizialen erreakziorik eragin (*Astocondor et al.*, 2011). Egia eta Adiskidetzaren Batzordeak (EAB) frogak aurkitu ditu eta 538 sexu-indarkeria kasu aipatu ditu bere Amaierako Txostenean (2003), hala ere, horietako oso gutxi iritsi dira auzitegietara⁵⁴. Batez ere emakumeen eta neskatzen kontra eragindako sexu-indarkeria hainbat lekukotzaren bidez erregistraturik dago, eta agerikoak dira biktimek pairatzen dituzten ondorioak, bai eta indarkeria horien emaitza diren adingabekoen kopurua ere (Rios eta Brocante, 2017: 92-95).

Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordeak (EAB) bere Amaierako Txostenean azaldu zuen egindako azterketaren oinarri juridikoa nazioarteko araudia zela, bereziki, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa eta Nazioarteko Zigor Zuzenbidea, eta araudi horrek konstituzio-izaera duela barne-araudian; hortaz, argi utzi zuen edozein amnistia-legeren baliogabetasuna (EAB, Amaierako Txostena, 2003: 196-214). Barneko organo judizialen erabakien zain, EABk sexu-indarkeriaren kontsiderazioa NZGren “Krimenen elementuak” dokumentuan jasotakoarekin bat dator, eta honela jaso da:

“EABren iritzi, emakumearen kontrako sexu-indarkeria, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideari atxikiz, giza eskubideen per sé urraketa da eta Perun izandako barne-gatazka armatuaren barruan gauzatuta, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren urratze larria. Indarkeria hori, gainera [...], gizateriaren kontrako krimena da, zenbait kasutan orokortuztat eta beste batzuetan sistematikotzat kalifika daitezkeen ezaugarriak betetzen dituelako. Hortaz, horren erantzukizunak egile zuzenei ez ezik horien buruzagi edo goi-agintariei ere badagozkie, eta ustezko erantzuleak

54 Manta eta Vilcaren kasua da epaia lortzeko hurbilen dagoena. Gaur egun oraindik ebatzteko dago arazo-prozesalengatik, COVID-19 pandemiaren eraginagatik eta botere judizialaren ageriko utzikeriagatik, mugimendu legal feministek salatu duten bezala. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu hemen:

<https://manoalzada.pe/feminismos/manta-y-vilca-ultima-audiencia-de-sabino-valentin>

Estatuaren agenteak, zibilak edo erakunde subertsiboetako kideak ere izan daitezke” (*ibid.*: 265).

Horren ildoan, sexu-indarkeria espezifikoki onartzen da. EABren txostenean (*ibid.*: 272-273) jasotzen den bezala,

“herrialdean bizi izan zen gatazka armatuan, Peruko emakumeen kontrako hainbat eta hainbat sexu-indarkeria kasu eragin zituzten Estatuoko nahiz talde subertsiboetako erasotzaileek. Nazioarteko zenbait erakunde azpimarratu du hori, nabarmenduz, gainera, gatazkan zehar, borrokan ziharduten alderdi biek emakumeak bortxatzen zituztela eta abusuak eragiten zizkietela larrialdietako guneetan sartzean edo atxilotu eta galdeketa egitean. Errealitate horrek ahalbidetu egiten du Peruk bizi izan zuen gatazka armatuan zehar ‘genero-indarkeria’ eragin zela esatea, sexu-indarkeriak emakumeak kaltetu zituelako emakume izate hutsagatik. Gizonen kontrako sexu-indarkeria kasuak izan ziren arren, emakumeak ziren egintza horiek kaltetutako gehien-gehienak”.

EABk adierazitakoaz gain, biktimak aintzat hartzea eta eragindako kalteen erreparazioa oso mantso daramate Peruko instantzia judizialek; gertaera horietako asko jazo zirenetik 40 urte igaro dira, froga eta testigantza asko desagertu egin dira eta kaltetutako emakumeetako asko berbiktimizatu egin dira (Astocondor *et al.*, 2011). Horren ildoan, EABren lanak eta ondorioek ezarri zuten abiapuntuak potentzialtasuna gal dezakete horren ondotik justizia ezarriko duten eta, ahal den heinean, kaltearen erreparazioa eragingo duten erantzun judizialik ez badago.

4.5. Kongoko Errepublika Demokratikoa

Kongoko Errepublika Demokratikoan sexu-indarkeria modu orokortu eta sistematikoan ezarri da 1990eko hamarkadaz geroztik izandako gatazka armatuetan. Hala ere, nazioko auzitegiek ez zituzten behar beste jazarri. Izan ere, gatazka armatuetako sexu-indarkeriaren larritasunaren eta neurriaren eta Estatuaren –organo judizialak barne– erantzun eskasaren arteko desorekaren adibide paradigmaticoa da herrialde hori, eta horrek zigorgabetasun handia eragin du krimen horri dagokionez.

KEDan zigor-prozesua bereziki konplexua eta garestia da. Barneko auzitegietan sexu-indarkeriako egintzak epaitzeko dauden mugen artean honako hauek aurkitu ditugu: frogaren indarraren araberako prozesu-

betekizunak; justiziara iristeak duen kostu ekonomikoa; auzietan parte hartzen duten eragile juridikoen (epaileak, abokatuak, forentseak) prestakuntzarik eza (bai juridikoa bai, bereziki, genero-arlokoa); nazioko segurtasun-indarrei dagokienez, maila baxuko soldaduak jazartzen dira, eta ez goi mailakoak, bai ekintzagatik bai omisioagatik⁵⁵; prozesuaren aurretik, bitartean eta ondoren biktimak eta lekukoak babesteko eta bermatzeko neurririk eza; prozesutik bertatik eratorritako estigmatizazio soziala eta berbiktimizazioa; justiziarenganako konfiantzarik eza, etab. (GENF-KED, 2013: 53 eta hur.; HRW, 2009: 48 eta hur.).

Salbuespen izan diren arren, badira militarren, polizien eta estatuz kanpoko talde armatuetako kideen kontrako zigor-epaien adibideak. Hemen hiru kasu nabarmenduko ditugu. Lehenengoa Songo Mboyo kasua izan zen. Kasu horretan, Kongoko Armada Nazionaleko batailoi bateko zenbait kideren kontra gizateriaren kontrako krimenengatik lehenengo zigorra ezarri zen; 120 emakume eta neskatxa bortxatzeaz akusaturik zeuden. Epaia auzitegi militar batek eman zuen 2006an, krimen horren inguruan NZGren Estatutuan –KED estatu kide bat da– jasota dauden xedapenak aplikatuz.

Bigarren kasua, 2009koa, Gédéon Kyungu Mutanga izan zen; maï-maï (tokiko defentsa-miliziak) taldeko burua izanik, hainbat bortxaketa, genitalen mutilazio eta sexu-esklabotzako egintzak gauzatu zituen sistematikoki, eta bere soldadu batzuekin batera zigortu zuten NZGren Estatutuan jasota dauden egintza horientatik. Kasu hori bereziki esanguratsua izan zen; izan ere, auzitegiak onartu zuen Kongoko Estatuak ere erantzukizun zibila zuela egintza horietan, talde armatu horri armak ahalbidetzeagatik eta “soldadu horiek guztiz eta benetan armagabetzeko inoiz ahaleginik ez egiteagatik”; eta arrazoi horrengatik zigortu zuten “krimen horien ondorioz eragindako kalteen erreparaziora” (GENZ-KED, 2013: 25-28)⁵⁶.

55 Erromako Estatutuari atxiki zitzaion ohiturako Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren printzipio bat da, eta krimenak eurak egiteagatik edo beren mendekoei egiteko agintzeagatik, hierarkian goren dauden militarrei egotz lekiekeen zuzeneko zigorerantzukizunaz gain, beren agindupean zeuden militarrek eragindako krimenak prebenitzeko neurririk ez hartzeagatik eta krimen horiek ez zigortzeagatik ere errudun izan daitezke (HRW, 2009: 18).

56 Tribunal Militaire de Garnison de Haut-Katanga, *affaire Gédéon Kyungu Mutanga et autres*, RP No. 0134/07, 2009ko martxoak 5, eta apelazioan, Cour militaire du Katanga, *affaire Gédéon Kyungu Mutanga et autres*, RPA n°025/09, 2010eko abenduak 16.

Eta hirugarrenik, 2020ko irailean, hogeit hamar militar eta polizia bat zigortu zituen justizia militarrek Hego Kivu probintzian, urte horren hasieran bortxaketak eta izaera sexuarekiko bestelako egintzak gauzatzeagatik. Orobat, Kongoko estatuari berriro ere erantzukizun zibila egotzi zioten, eta 23 biktimen –tartean, adingabeko hainbat– kalteen erreparazio-gastuak modu solidarioan ordaintzera zigortu zuten.

5. Dagoen marko juridikoari eta horren aplikazio juridikzionalari buruzko azken gogoetak

5.1. Identifikaturiko mugak eta hutsuneak

Marko juridiko jakin bat aztertzeke –kasu honetan, gatazka armatuetako sexu-indarkeriari dagokiona– hori arautzen duten arauak ez ezik eskumena duten agintariek, praktikak, arau horiek aplikatzeko eta interpretatzeko moduari ere erreparatu behar diogu. Nazioarteko eremuan, Estatuaren jokabidea berebizikoa da, Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren subjektu jatorrizko eta nagusiak direlako. Yolanda Gamarrak (2005: 13) adierazten duen bezala, giza eskubideen nazioarteko tresnak benetan aplikatzea benetako agintea duten estatuko organoen esistentziaren araberakoa da hein handi batean.

Gaur egungo gatazka armatuei eta bertan gauzatzen den sexu-indarkeriaren zigorgabetasun mailari erreparatzea besterik ez dago gaur egun dagoen arau-markoa ez nahikoa ez egokia ez dela ondorioztatzeke. Gauzatzen diren egintzen neurri eta larritasunaren eta haien zigor-jazarpenaren artean izugarrizko aldea dago, bai nazio barruan bai nazioartean. Desoreka hori azaltzeko sakoneko hainbat arrazoi daude, eta hemen ezin ditugu behar bezala denak aztertu. Hori dela eta, testu honen edukitik ondoriozta daitezkeen batzuk identifikatu ditugu.

Gatazka testuinguruetako sexu-indarkeria inbisibilizaturik egon da historian zehar pertsonak babesteko nazioarteko tresnetan. Alde batetik, hori horrela izan da Estatuak direlako nazioarteko arauak landu eta bere burua horien mende jartzea onartzen dutenak, eta horiek Estatuak (haien ikuspegia, haien kezka, beharrianak eta interesak) jarri dituzte erdigunean, pertsonak eta haien babesa jarri beharrean. Hori aldatzen ari da, oso mantso bada ere, Nazioarteko Zuzenbidearen apurkako humanizazioari esker. Beste alde batetik, sexu-indarkeria eremu pribatuko, familia barruko gaitzat hartu izan

da luzaroan, eta ez nazioarteko araudietan edo Estatu barrukoetan kontuan hartzeko giza eskubideen kontrako eraso edo nazioarteko krimen gisa. Gatazka armatuetan egintza horien kontsiderazioa ere ikuspegi tradizional horretan oinarritu izan da.

Gatazka armatuetako sexu-indarkeriaren aurrean pertsonak babestu beharra Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren bidez kontuan hartzen hasi zirenean (esaterako, 1949ko Genevako Konbentzioetan), babestu zuten ondare juridikoa ohorea, duintasuna eta ahalkea izan ziren, Zuzenbidearen ikuspegi androzentriko eta patriarkalaren barruan. Hau da, babesten zutena emakumearen eta bere familiaren (famiako gizonen?), komunitatearen (komunitateko gizonen?) eta/edo Estatuaren (Estatuko gizonen?) ohorea eta duintasuna ziren. NZHren arau klasiko horietan –zeinetako batzuk gaur egunera arte ere iritsi diren– antzematen dena da emakumeen funtzio sexual eta ugalketa-funtzioagatiko eta euren ama paperarekiko kezka, ez ordea horrenbeste emakumeen osotasun fisiko edo mentala edo haien intimitatearekiko kezka (Ayat, 2010: 811). Emakumeenganako erreferentzia gainerakoekiko zeharkakoa da, diferitua, bigarren mailakoa; ez da benetako eskubidedun subjektu gisa kontuan hartzen. Duela 70 urte baino gehiago idatzitako arauak dira, eta arau horiek adostu zituzten gizonen ikuspegia islatzen dute: genero rol eta estereotipoz beteriko ikuspegia, gerra egoeretan, “emakumeak biktima” gisa ikusten lagundu duena. Ikuspegi horrek badu zenbait funtzio “erabilgarri”; alde batetik, gerra legitimazioa behar du, eta horretarako, nahitaezkoa da “babestu” beharreko “biktima babesgabeak” egotea; beste alde batetik, emakumeak “biktimatzat” hartzeak ahuldu egiten du haien boterea eta gatazketan eragile gisa duten garrantzia (Barrow, 2010: 222-233), eta aldi berean, gizonak “babesle” bihurtzen ditu.

Joan den mendeko laurogeita hamarreko urteetatik aurrera, gatazka armatuetako sexu-indarkeriaren gaiak indarra hartu zuen nazioarteko agendan, eta, orduz geroztik, inoiz ez bezala sustatu da mehatxu horren aurreko babesa eta delitu horiek egiten dituztenen kontrako banakako zigor erantzukizuna. Hala ere, berriro ere, ahalegin hori bultzatzen duten oinarriek zenbait zalantza eragiten dituzte. Alde batetik, gatazka armatuetako emakumeen kontrako indarkeriaren ikuspegi “hertsiki sexualizatua” sustatu da babes horretan; eta emakumeak gorputz soiletara eta haien ugalketa funtzio eta funtzio sexualera murritzten ditu, halako testuinguruetan gertatzen diren indarkerien continuum horren garrantzia gutxituz (Rehn eta Sirleaf, 2002: 9-10; Cockburn, 2004: 43). Emakumeek hainbat indarkeria motari egin behar diete aurre (fisikoa, estrukturala, sinbolikoa), eta askotariko eremu (politiko, sozial, ekonomiko), testuinguru (gatazka armatu baten borroka guneetan, baina bai eta hortik

kanpo ere) eta unetan (gatazken aurretik, bitartean eta ondoren). Ikuspegi horretatik, sexu-indarkeria genero-zioengatiko egiturazko desberdintasun-egoeraren adierazpidea da.

Jurisprudenziaren parte batean ageri den arren, batik bat giza eskubideen edo barneko zuzenbideko eskualdeko auzitegietan, aipatutako indarkeria eragiten duten gizonen eta emakumeen arteko botere-harreman desberdinei buruzko aipamenik ez da ageri gai horren inguruko nazioarteko ez nazioko araudietan. Absentzia hori ez da harrigarria; izan ere, estatuzentrikoak izateaz gain, nazioarteko arauak historikoki androzentrikoak ere izan direlako. Gizonak (haien interesak, beharrianak, kezkek) nazioarteko arauen eta horien aplikazio eta interpretazioaren neurri-unitate edo erreferentzia izan dira, bai estatuen barne-eremuan bai nazioarteko zigor auzitegietan (Nicolás Lazo, 2013).

Aldi berean, eta marko juridiko androzentrikoa dela kontuan hartuta, gizonen ez zaie interesatu gatazka armatuetako gizonen kontrako sexu-indarkeria arauetan kodifikatzea. Nazioarteko arauak –eta imajinario sozialak– inplizituki edo esplizituki jasotzen duten sexu-indarkeriaren biktima potentziala emakume bat da, tradizionalki femininotzat jo diren rola, ezaugarriak eta portaerak dituen. Horren ondorioz, ezkutuan geratu dira oro har gatazka armatuetan gizonen kontra eragindako sexu-indarkeria (Carpenter, 2006). Nahiz eta gatazketan oso presente egon den, oso gutxitan hartu izan da kontuan nazioarteko arau eta jurisprudenzian⁵⁷, bake eta segurtasun politikan eta literatura akademikoan⁵⁸. Zalantzarik gabe gai tabua izan da, eta, hein handi batean, izaten jarraitzen du. Horren azalpen bat da gai horri heltzeak gure ahultasuna eta zaurgarritasuna onartzea eskatzen digula gizonen (politikari erabakitzaile, legegile, epaile, biktimagile eta biktima). Horri lotuta, beste azalpen bat da gizonen kontrako sexu-indarkeria kasu ia guztietan –emakumeen kontrako indarkeriarekin gertatzen den bezala– egileak gizonak direla, eta horrek mahaigaineratu egiten du gatazka armatuetan ageri diren maskulinitate hegemoniko eta militarizatupei eta testuinguru horietan gertatzen den indarkeria azaltzeko duten gaitasun handiari buruzko gogoeta (zirion landaluze, 2018: 64-75 eta 119-122).

57 Testu honetan gizonen kontrako sexu-indarkeria ikusarazi duten zenbait kasu aipatu ditugu; hala nola, Perun, Kongoko Errepublika Demokratikoan edo antzinako Jugoslavian. Gai hori nazioarteko zigor auzitegiek nola tratatu duten jakiteko, kontsultatu Sellers eta Nwoye (2018).

58 Bereziki azkeneko bi hamarkadetan gai horri buruzko argitalpenak agertu dira. Horren adibide berri eta interesgarria da Sexual Violence againts Men in Global Politics (Zalewski *et al.*, 2018) taldeko liburua.

Orobat, nazioarteko araudian ezkutuan jarraitzen du gatazka armatuetako LGBTI (Lesbiana, Gai, Bisexual, Transexual, Intersexual) pertsonen kontrako sexu-indarkeriak; eta horiek, hain zuzen, halako testuinguruetan, indarkeria espezifikoa –tartean sexuala ere bai– askoren biktima dira; are gehiago homosexualitatea edo transgenero identitateak sozialki arbuiatzen, gaixotasuntzat hartzen edo delitutzat zigortzen diren testuinguruetan. Horri dagokionez, lehenago aipatu dugu NZGk berak generoari berariazko erreferentzia egiten diola bere Estatutuan eta maskulinoari eta femeninoari lotzen diola; bestelako aukerak kanpoan utziz, eta horrek, zalantzarik gabe, babesgabetasun-egoerak eragin ditzake. Hori ebatzteko dagoen alderdia da, eta doktrinan, arauetan eta jurisprudentzian⁵⁹ garatzea merezi du.

Era berean, eguneroko jardunean, sexu-indarkeria pairatu eta bizirik irten diren pertsonak aurrean dituzten eragozpen instituzional, ekonomiko, sozial, prozedurazko, eta abar., sarritan gaindiezinak dira nazioartean edo nazioan bertan, eta horrek eragotzi egiten du haien justiziarako eskubidea. Gainera, sarritan sistema judizialek eragiten dituzten estigmatizazioak eta berbiktimizazioak etsiarazi egiten ditu; horrek, eta errepresaliak jasotzeko beldurrak. Eragozpen horiek guztiek sexu-krimenen gaineko isiltasunaren eta zigorgabetasunaren kultura elikatzen dute. Hori dela eta, ezinbestekoa da biktimentzat eta zigor-prozesuetan testigantza ematen duten pertsonentzat babes eta berme protokolo eraginkorrak abian jartzea. Eta horrekin, azkenean krimen horiek gauzatu direla onartzen bada, eragindako kaltea konpontzeko behar den arretaz jokatzera behartzen dute nazioarteko tresna juridikoek (Álvarez López *et al.*, 2014), sistemaren ardatz den aldetik, biktimari arreta eginez; horrek funtsezko garrantzia duen arren, baztertua izaten ari baita kasurik gehienetan.

Azkenik, Nazioarteko Zuzenbidearen zatikatzeko arriskua azpimarratu nahi dugu azken elementu gisa. Testuan erakutsi dugun legez, nazioarteko hainbat organo jurisdikzional egoteak (iraunkorrak eta *ad hoc*; nazioartekoak eta hibridoak) Nazioarteko Zigor Zuzenbidearen garapenari eragin diezaioke, izaera sexualeko krimenei dagokienez. Nazioarteko arauen eduki desberdinak (esaterako, auzitegien Estatutuetan jasotzen diren sexu-indarkeriaren tipo penalek elementu desberdinak izateak edo, bai eta, tipo penal desberdinak jasotzea ere), eta auzitegiek egiten duten aplikazioa eta interpretazioa

59 Adibidez, Héctor Olasolo *et al.* -ek (2020: 366-368) jasotzen duten bezala, eztabaida doktrinal sakona dago erabakitzeke pertsona horien kontra beren orientazio sexualagatik eragindako zenbait ekintza sar litezkeen genozidio-krimenek eta gizateriaren kontrako krimenek eskaintzen duten babes eremu horretan.

ere bateratua ez izateak desberdintasun kaltegarriak eragin ditzakete eremu horretako zuzenbidearen garapen argi, uniforme eta unibokorako. Antzinako Jugoslaviarako eta Ruandarako Nazioarteko Zigor Auzitegien jurisprudentzia desberdina aztertzean identifikatu dugu arrisku horren adibide bat, bortxaketaren definizioari dagokiona. Gatazka-testuinguruetakoa sexu-indarkeriaren aurrean pertsonak babestea den helburu nagusia zer neurritan ahul dezakeen horrek oraindik zehazteko dago hein handi batean.

5.2. Hobetzeko proposamenei buruzko eztabaida irekia

Gatazka armatuetako sexu-indarkeriaren aurrean babesteko arauen (eta auzitegien aplikazio eta interpretazioaren) ahuleziei eta arau horiek, praktikan, dituzten emaitza mugatuak buruz azaldutakoa ikusita, bistakoa da alderdi horretan marko juridikoak eman dituen emaitzak nola hobetu eta nazioarteko arauetan eta haien interpretazio eta aplikazioan zer aldaketa egin behar diren aztertu behar dela, indarkeria zehatz horien aurrean babes handiagoa eskaintzeko. Gai horien inguruan askotariko iritziak daude.

Lehenik eta behin, zenbait eragileren iritziak, Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeak, kasu (Amnistia Internazionalan aipatua, 2005: 113), arazo handiena ez da behar beste arau ez izatea, praktikan behar beste ez aplikatzea baizik. Haien iritziak, eremu horretan, Nazioarteko Zuzenbidearen urratze maila bereziki handia da eta, horrekin batera, zigorgabetasunarena ere bai. Arauak izan badira, eta haien edukia, orokorrean, egokia da –haien hitzetan–, baina praktikan ez dira errespetatzen.

Bigarrenik, beste zenbaiten iritziak, arauetako askoren premisak zaharkituta daude eta berriro aztertu beharko lirake; hau da, arau-markoak eboluzionatu egin behar duela diote, marko hori aplikatzen den testuinguruak egin duen bezalaxe (Zorrilla, 2005: 10); izan ere, testuinguru horretako gatazka armatuen konplexutasuna handiagoa da, eta kezka handiagoa dago pertsonen babesaren alde edo emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde nazioarteko agendan. Nazioarteko Zuzenbide Publikoa Zuzenbidearen antzinako adarra da, kontserbatzailea eta ez oso malgua (Gardam eta Charlesworth, 2000: 166), eta testu honetan aztertu diren arauetako asko errealitate horren isla dira; Zuzenbidearen eta Nazioarteko Gizartearen garapenaren, botere-harremanen, Estatuon borondateen eta idatziak izan ziren testuinguruan lortu zituzten adostasunaren emaitza dira. Ikusi dugun bezala, arau batzuk gaizki zahartu dira eta, gaur egun, oso muga sakonak dituzte; hori dela eta, are garrantzitsuagoa

da aplikazio eta interpretazio dinamiko eta progresista bat egitea (Martin eta Lirola, 2013: 14). Aldatu beharreko gaien artean aipatutako batzuk daude: marko juridiko honetako emakumei buruzko joera estereotipiko eta/edo esentzialistak (Amnistía Internacional, 2005: 113), emakumeak berezko eskubide-subjektutzat hartuak izan daitezen eragotzi dutenak; eta babestu beharreko ondasun juridikoak eta sexu-indarkeriari bera askoz ere modu ulerkorrago eta integralagoan hartzea, esaterako, tipo penal inklusiboagoen bidez, nazioarteko zigor auzitegien jurisprudentzia aurrerakoiagoarekin bat.

Hirugarrenik, beste ahots batzuek (Martin eta Lirola, 2013: 6) aldaketa sakon eta handinahiagoak proposatzen dituzte; hala nola: gatazka armatuetako sexu-indarkeria arautuko duen nazioarteko itun espezifiko berri bat onartzea. Proposamen interesgarria da, baina gauzatzeko konplexua. Nazioarteko Zuzenbidean aldaketak ez dira ez erraz ez azkar gertatzen. Arauak onartzeko – eta, ondorioz, estatuentzat betebehar eta konpromiso berriak sortzeko– estatuen onspena behar denez, dagoeneko badiren Tratatuak moldatzeak edo gai honi buruzko beste akordio espezifiko bat onartzeak denbora eta ahalegin handia beharko luke. Eta gai honen inguruan emandako beste aurrerapausoetan gertatu den bezala, eragin politikoa eta nazioarteko gizarte zibilaren nazioarteko presioa beharko lirateke, bereziki, emakumeen, feministen eta antimilitaristen mugimenduek nazioko eta nazioarteko erabakitzaile politikoengan eragitea.

Laugarrenik, beharrezkoa da estatuak justiziarako eskubidea bermatzea nazio barruan; barne araudietan ez ezik, testu honetan aztertu ditugun nazioarteko aurrerapen juridiko eta estandarretan ere oinarrituta. Nazioarteko auzitegietatik eratortzen den eta aztertu ditugun nazioarteko arauetan oinarritzen den jurisprudentzia zer puntutaraino aplikatzen duten estatuetakoa auzitegi nazionalak; gogoeta hori eragiten digu aurreko guztiak. Nazioarteko araudia eta jurisprudentzia nazio eremuan txertatzea –jakina, Estatu bakoitzaren berezko prozesuaren bitartez– nazioarteko marko juridikoaren hedadura materiala eta estatu askok bereganatzea zabaltzen ari da. Horrela, esaterako, Perun, giza eskubideei buruzko itunek maila konstituzionala dute eta haiei buruzko nazioarteko jurisprudentzia berriaz txertatu da barneko araudietan (Astocondor *et al.*, 2011: 258). Beste estatu batzuetan, txertatze hori tazituagoa da, baina estatuetakoa barneko auzitegiek nazioarteko arauak eta/edo nazioarteko auzitegiek arau horiei buruz egindako interpretazioa aplikatu dute. Horrela, gatazka egoeretako sexu-indarkeriari buruzko edukia eta ikuspegia unibertsalizatzen ari da; mantso baina etengabe, eta sexu-indarkeriaren egileei gero eta zailagoa zaie haien defentsa tipo penal espezifikorik ezean edo amnistia legeak izatean oinarritzea (Gamarra, 2015).

Corpus juridiko hori estatueta txertatzeari buruzko alderdi azpimarragarrienetako bat da ez direla mugatzen gatazka armatuetako egoeretara soilik; aitzitik, ikusi dugun bezala, indarkeria soziopolitiko altuko egoeretara ere hedatzen ari da, hala nola, Mexikon, GENAren aurrean, edo estatu-terrorismoaren kasuetan, Argentinako barneko auzitegietan. Eta horregatik ere, estatuko eragileek gauzatutako sexu-indarkeria gatazka armatuetan borrokatzen diren eragileek gauzatzen dutenekin identifikatzeak herritarren babeserako estandar altuagoak jasotzeko bidea irekitzen du. Gure iritzi garrantzitsua da estatueta legeak egiten dituztenek eta epaitzen dutenek behin eta berriz jotzea nazioarteko arauen garapenera eta bilakaera judizialetera sexu-indarkeria jazartzeko, bai eta gatazka armatuetatik kanpo ere; esaterako, azaldu behar dutenean bortxaketa bat zer den, edo zer sexu-indarkeria mota dauden, edo zer den onespina autonomia sexualari dagokionez, edo biktimaren rola zein izan behar duen prozesu judizialean. Horrela, auzitegi batek, esaterako, gatazkarik ez dagoen egoera batean, taldeko bortxaketa bat biktimarentzat zer den aztertu behar duenean, agian, dagoeneko edukiko du erantzunik nazioarteko ekoizpen judizialean.

Beste planteamendu bat da –agian erradikalagoa baina leku berera garamatzana– sexu-indarkeria, berez eta heteropatriarkatuaren adierazpide gisa, badela gatazka egoera bat. Emakumeen eguneroko bizimoduan jardunbide patriarkalak ohikoak direnean, indarkeria etengabea da, iraunkorra; hau da, gatazka armatuko egoeretatik kanpo ere gertatzen da; beraz, galdera litzateke zer puntutaraino izan daitezkeen aplikagarriak nazioarteko arauak eta jurisprudentzia –kasu honetan, gatazka armatuko egoeretako sexu-indarkeriari buruzkoa– bake-egoeratzat definituriko testuinguruetan.

Azkenik, bosgarrenik, beste bide interesgarri bat da gaur egun dauden arauen interpretazio aurrerakoiago bat azterbidean dela. Arauen edukia aldatzen den ala ez alde batera utzita, auzitegiek interpretatzea eta aplikatzeak ahalbidetu egin dezake zuzenbidea bera gatazka armatuetako sexu-indarkeriaren aurreko babeserako estandar handiagoetarantz eboluzionatzea. Testu honetan aztertu ditugun hainbat adibidetan ikusi dugu zigor auzitegien –nazioarteko, eskualdeko zein estatueta– lanak, beren jurisprudentziaren bidez, nazioarteko arauetan jasotzen den zuzenbidea pertsonen eskubideen babes eta bermerantz bilakatzea ahalbidetu duela. Adibide horien artean honako hauek daude: izaera sexualeko tipo penalak izaera propioa duten krimentzat hartzea, tortura edo tratu anker eta laidogarriztat ez ezik, gerra-krimen, gizateriaren kontrako krimen edo genozidiotzat hartu behar direnak; bortxaketaren eta izaera sexualeko beste portaera kriminal batzuen definizioa zehaztea; bestelako portaera batzuk zigortzean indarkeria izatearen garrantzi

erlatiboa aintzat hartzea, biktimaren autonomia sexuala bera baita bortxatzen dena; biktimaren onespenerik ezaren presuntzioa, eta biktimaren alde aurreko portaera sexuala frogatzen onartu ezina.

Aurrerapen horien ildoan, prozesu osoan zehar genero-ikuspegia txertatzean oinarritu behar da ibiltzeko dagoen bidea; bai arauak sortzean bai auzitegiek egingo duten aplikazio eta interpretazioan, nazioartekoak edo estatuetakoak izan. Horrek esan nahi du sexu-indarkeria pairatu eta bizirik irten diren pertsonak jarri behar direla erdigunean eta abiapuntutzat hartu behar direla haien egoera desberdinak, gizartean izandako botere-harremanak eta esperientziak oro har, eta gatazka armatuetako egoeratan izandakoak bereziki. Horrela, egingarriagoa izango da auzitegietara jotzeko aukera bermatzea, prozeduraren aurretik, bitartean eta ondoren babestuko direla bermatzea eta, nola ez, kasu bakoitzean arauak aplikatu eta interpretatuko direla egia, justizia eta erreparazioa gauzatzea lortzeko.

6. Erreferentziak

Álvarez López, Yaneth Carolina, Nina Ferrer Araujo eta Yucelis Garrido Ochoa (2014). “Estándar Interamericano de la debida diligencia: aplicación por las altas cortes colombianas en los casos de delitos de violencia sexual contra mujeres en el conflicto armado”. *Revista Jurídica Mario Alario D’ Filippo*, 6(11), 37-49.

Álvarez, Victoria (2019). “‘Además me violaron’. La violencia sexual en centros clandestinos de detención durante la última dictadura militar argentina”, *Iberoamérica Social: Revista-Red de Estudios Sociales*, 3, 58-77.

Amnistía Internacional (2005). *La violencia contra las mujeres en los conflictos armados*.

<http://ibdigital.uib.es/greenstone/collect/cd2/index/assoc/ai0045.dir/ai0045.pdf>

Astocondor Salazar, Gisela, Andrea Ofracio Serna eta Tania Raico Gallardo (2011). “La judicialización de la violencia sexual en el conflicto armado en Perú a propósito de los recientes estándares internacionales de derechos humanos desarrollados en la jurisprudencia de la Corte IDH”. *Revista IIDH*, 53, 213-259.

Avilés, Lucía (2017). “Juzgar con perspectiva de género. Por qué y para qué”, *Tribuna Feminista*.

<https://tribunafeminista.elplural.com/2017/08/juzgar-con-perspectiva-de-genero-por-que-y-para-que/>

Ayat, Mohammed (2010). “Quelques apports des Tribunaux pénaux internationaux, *ad hoc* et notamment le TPIR, à la lutte contre les violences sexuelles subies par les femmes durant les génocides et les conflits armés”. *International Criminal Law Review*, 10(5), 787-827.

Baaz, Maria Eriksson eta Maria Stern (2013). *Sexual Violence as a Weapon of War? Perceptions, Prescriptions, Problems in the Congo and Beyond*. Zed Books, Londres.

- Barrow, Amy (2010). “UN Security Council Resolutions 1325 y 1820: constructing gender in armed conflict and international humanitarian law”, *International Review of the Red Cross*, 92(877), 221-234.
- Bernal Acevedo, Gloria (2013). “Primera Jurisprudencia en Violencia Basada en Género [VBG] en la Ley de Justicia y Paz en Colombia”. In Cortes, Edwin (ed.). *Erabaki judizialak. Lubanga (D.R. Congo). Vencedores de Arauca (Colombia). Akayesu (Ruanda). Menéndez (Argentina). Río Negro (Guatemala). Iruzkinak*. Deutsche Gesellschaft Für Internationale Zusammenarbeit, 63-97.
- Bienvenu Haba, Moussa eta Fannie Lafontaine (2017). “Juger les plus hauts responsables pour crimes sexuels à la Cour pénale internationale: l’utilité de la responsabilité par omission à la lumière de la décision de la chambre de première instance dans l’affaire Bemba”. *Revue québécoise de droit international*, 1(1), 73-100.
- Carpenter, Charli R. (2006). “Recognizing gender-based violence against civilian men and boys in conflict”. *Security Dialogue*, 37, 83-103.
- Charlesworth, Hilary (2011). “Talking to Ourselves? Feminist Scholarship in International Law”. In Kuovo, Sari eta Zoe Pearson (argtz.). *Feminist Perspectives on Contemporary International Law*, Hart Publishing, Oxford, 17-33.
- Cockburn, Cynthia (2004). “The Continuum of Violence. A Gender Perspective on War and Peace”. In Giles, Wenona y Jennifer Hyndman (argtz.). *Sites of Violence. Gender and Conflict Zones*, University of California Press: Berkeley, 24-44.
- Corte Penal Internacional (2019). *Informe sobre las actividades de examen preliminar 2019*. Fiscalía de la CPI.
<https://www.icc-cpi.int/itemsDocuments/2019-PE-Report-COL-SPA.pdf>
- Fédération Internationale des ligues des Droits de l’Homme-Republicque Democratique du Congo (FIDH-RDC) (2013). *Les victimes de crimes sexuels obtiennent rarement justice et jamais réparation*.
https://www.fidh.org/IMG/pdf/rapport_rdc.pdf
- Fileborn, Bianca eta Fiona Vera-Gray (2017). “I want to be able to walk the street without fear”: Transforming Justice for Street Harassment. *Feminist Legal Studies*, 25, 203-227.
- Forer, Andreas (2013). “Reseña jurisprudencial del caso de Thomas Lubanga Dyilo. Notas acerca de la primera condena de la CPI”. In Cortes,

- Edwin (ed.). *Erabaki judizialak. Lubanga (D.R. Congo). Vencedores de Arauca (Colombia). Akayesu (Ruanda). Menéndez (Argentina). Río Negro (Guatemala). Iruzkinak*. Deutsche Gesellschaft Für Internationale Zusammenarbeit, 11-62.
- Fulchiron, Amandine (2017). “Actoras de Cambio en Guatemala: poner el cuerpo y la vida de las mujeres en el centro de la justicia”. In Mendia Azkue, Irantzu, Gloria Guzmán Orellana eta iker zirion landaluze, *Generoa eta trantsiziozko justicia*. Hegoa: Bilbo, 65-112.
- Gamarra, Yolanda (2015). “El legado de la Corte Interamericana de Derechos Humanos en la erradicación de las leyes de amnistía”. *Eunomía. Revista en Cultura de la Legalidad*, 9: 124-146.
- Gardam, Judith Gail eta Hilary Charlesworth (2000). “Protection of Women in Armed Conflict”. *Human Rights Quarterly*, 22(1), 148-166.
- Gardam, Judith Gail eta Michelle Jarvis (2000). “Women and Armed Conflict: The International Response to the Beijing Platform for Action”. *Columbia Human Rights Law Review*, 32(1), 1-66.
- Goikoetxea, Jule (2015), *Bakea ez da existitzen, feminismoa bai*. Udako Euskal Unibertsitatearen Gatazka politikoa eta etorkizuneko bake feminista ikastaroan aurkeztutako txostena:
<http://www.klitto.eus/bakea-ez-da-existitzen-feminismoa-bai-i/>
- Goldenberg Goldstof, Melissa (2010). “Security Council Resolution 1820: An imperfect but necessary resolution to protect civilians from rape in war zones”. *Cardozo Journal of Law & Gender*, 16, 491-517.
- Human Right Watch (2009). *Les soldats violent, les commandants ferment les yeux Violences sexuelles et réforme militaire en République Démocratique du Congo*.
https://www.hrw.org/sites/default/files/reports/drc0709frwebwcover_0.pdf
- Hunter, Rosemary (2012). “The power of feminist judgments?”. *Feminist legal studies*, 20(2), 135-148.
- Mabanga, Ghislain (2016). “Affaire Bemba: La CPI fixe les critères d’appréciation de la responsabilité pénale du chef militaire et du supérieur hiérarchique”. *La Revue des droits de l’homme*.
<https://journals.openedition.org/revdh/2072>
- Mantilla Falcón, Julissa (2008). “La violencia sexual como crimen de lesa humanidad a la luz de los avances del derecho internacional”. In Corporación

Sisma Mujer, *Más allá de las cifras. Derecho Internacional, violencia contra las mujeres, conflicto armado*. Cuarto Informe de la Red Naciones de Mujeres. Bogotá, 11-34.

<http://bdigital.unal.edu.co/49928/1/masalladelascifras.pdf>

Martín, Magdalena M. eta Isabel Lirola (2013). *Los crímenes de naturaleza sexual en el Derecho Internacional Humanitario*. Institut Català Internacional per la Pau.

http://icip.gencat.cat/web/.content/continguts/publicacions/documents_i_informes/arxiu/crimenes_de_violencia_sexual.pdf

Mendia Azkue, Irantzu (ed.) (2020). *Genero-ikuspegia Egiaren Batzordeetan. Latinoamerikako eta Afrikako esperientziak*. Hegoa: Bilbo.

Mendia Azkue, Irantzu, Gloria Guzmán Orellana, Maya Alvarado eta Brisna Caxaj (2012). *Ni olvido, ni silencio: Tribunal de Conciencia contra la Violencia Sexual hacia las Mujeres durante el conflicto armado en Guatemala*. Bilbo, Hegoa eta UNAMG: Bilbo.

Moreyra, María Julia (2007). *Conflictos armados y violencia sexual contra las mujeres*. Del Puerto: Buenos Aires.

Nicolás Lazo, Gemma (2013). “Feminismos, concepto sexo-género y Derecho”. In Sánchez Urrutia, Ana eta Nuria Pumar Beltrán (coords). *Análisis feminista del derecho. Teorías, igualdad, interculturalidad y violencia de género*, Bartzelonako Unibertsitatea: Bartzelona, 15-35.

Odio Benito, Elizabeth (1998). “De la violación y otras agresiones a la integridad sexual como crímenes sancionados por el derecho internacional humanitario (crímenes de guerra)”. In González Volio, Lorena (ed.). *Presente y futuro de los derechos humanos. Ensayos en honor de Fernando Volio Jiménez*. Instituto Interamericano de Derechos Humanos: San José, 259-296.

Ojinaga Ruiz, María del Rosario (2002). “La prohibición y criminalización en Derecho Internacional de las violencias sexuales contra mujeres civiles en conflictos armados”. *UNEDeko Zuzenbide Fakultatearen Buletina*, 19, 199-268.

Olasolo, Héctor, Nicolás Buitrago eta Vanessa Bonilla-Tovar (2020). “El tratamiento de la población LGTBIQ en el artículo 7 (1)(h) del Estatuto de la Corte Penal Internacional a la luz de la definición de ‘género’ y del estándar ‘otros motivos universalmente reconocidos como inaceptables con arreglo al derecho internacional’”. *Política Criminal*, 15(29), 362-385.

<http://politicrim.com/wp-content/uploads/2020/07/Vol15N29A13.pdf>

- Postigo Asenjo, Marta (2011). “Las mujeres, las guerras y el Derecho Internacional Humanitario”, *Cuestiones de género: de la igualdad y la diferencia*, 6, 117-133.
- Poyatos, Gloria (2018). *Justicia con perspectiva de género, Asociación de Mujeres Juezas*.
<http://www.mujeresjuezas.es/2018/04/26/justicia-con-perspectiva-de-genero-articulo-de-nuestra-socia-gloria-poyatos/>
- Quesada Alcalá, Carmen (2018). “La labor de la Corte Penal Internacional sometida a revisión: sentencia de apelación en el caso Jean-Pierre Bemba Gombo de 8 de junio de 2018”. *Revista Electrónica de Estudios Internacionales*, 36, 2-10.
- Rehn, Elisabeth eta Ellen Johnson Sirleaf (2002). *Women, War and Peace: The Independent Expert's Assessment on the Impact of Armed Conflict on Women and Women's Role in Peace-Building*. UNIFEM: New York.
- Ríos, Jerónimo eta Roberto Brocate (2017). “Violencia sexual como crimen de lesa humanidad: los casos de Guatemala y Perú”. *Revista CIDOB d'Afers Internacionals*, 117: 79-99.
- Rita Villegas, María Cecilia (2018). “La violencia contra las mujeres en el marco del terrorismo de Estado en Argentina”. *Revista Derechos en Acción*, 3(9), 251-265.
- Robin Geiss eta Noémie Bulinckx (2006). “Cuadro comparativo de los tribunales penales internacionales e internacionalizados”. *International Review of the Red Cross*, 861, 1-22.
https://www.icrc.org/es/doc/assets/files/other/irrc_861_geiss.pdf
- Robles Carrillo, Margarita (2012). “Mujer, paz y seguridad en la ONU”. In Robles Carrillo, Margarita (coord.). *Género, conflictos armados y seguridad: la asesoría de género en operaciones*. Granadako Unibertsitatea: Granada, 135-186.
- Sakamoto, Rumi (2001). “The Women's International War Crimes Tribunal on Japan's Military Sexual Slavery: A Legal and Feminist Approach to the 'Comfort Women Issue'”. *New Zealand Journal of Asian Studies*, 3(1), 49-58.
- Sánchez Gómez, Gonzalo (koord.) (2011). *Mujeres y guerra. Víctimas y resistentes en el Caribe Colombiano*. Taurus: Bogotá.
- Sellers, Patricia Viseur eta Leo C. Nwoye (2018). “Conflict-related male sexual violence and the international criminal jurisprudence”. In Zalewski,

Marysia, Paula Drumond, Elisabeth Prügl eta Maria Stern (argtz.). *Sexual Violence againts Men in Global Politics*. Routledge: Abingdon, 211-235.

Velásquez Nimatuj, Irma Alicia (2019). “*La justicia nunca estuvo de nuestro lado*”. *Peritaje cultural sobre conflicto armado y violencia sexual en el caso Sepur Zarco*. Hegoa: Guatemala.

<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/es/publications/409>

Villanueva Flores, Rocío (2006). “Protección constitucional de los derechos sexuales y reproductivos”. *Revista IIDH*, 42, 391-450.

Zalewski, Marysia, Paula Drumond, Elisabeth Prügl eta Maria Stern (argtz.) (2018). *Sexual Violence againts Men in Global Politics*. Routledge: Abingdon.

zirion landaluze, iker (2018). *Desarme, desmovilización y reintegración de ex combatientes. Género, masculinidades y construcción de paz en la República Democrática del Congo*. Tirant Lo Blanch: Valencia.

Zorrilla, Maider (2005). *La Corte Penal Internacional ante el crimen de violencia sexual*. Giza Eskubideen Erakundea, Deustuko Unibertsitatea: Bilbo.

Nazioarteko legeria eta beste dokumentu batzuk

1325 Ebazpena, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluarena (2000). Emakumeak eta bakea eta segurtasuna, 2000ko urriaren 31koa.

[https://undocs.org/es/S/RES/1325%20\(2000\)](https://undocs.org/es/S/RES/1325%20(2000))

1820 Ebazpena, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluarena (2008). Emakumeak eta bakea eta segurtasuna, 2008ko ekainaren 19koa.

[https://undocs.org/es/S/RES/1325%20\(2000\)](https://undocs.org/es/S/RES/1325%20(2000))

30. gomendio orokorra, emakumeak gatazka egoeren prebentzioan eta gatazka eta gatazka osteko egoeratan, Emakumeen kontrako Diskriminazioa Desagerrarazteko Batzordearena (2013).

https://tbinternet.ohchr.org/_layouts/15/treatybodyexternal/Download.aspx?symbolno=CEDAW/C/GC/30&Lang=en

48/143 Ebazpena, Nazio Batuen Biltzar Nagusiarena (1993). Antzinako Jugoslaviako gatazka armatuko guneetan emakumeen kontrako erasoak eta bortxaketak, 1993ko abenduaren 20koa.

<https://undocs.org/es/A/RES/48/143>

798 Ebazpena, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluarena (1992). Bosnia eta Herzegovina, 1992ko abenduaren 18koa.

[https://undocs.org/es/S/RES/798%20\(1992\)](https://undocs.org/es/S/RES/798%20(1992))

Antzinako Jugoslaviarako Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Estatutua (bertsio eguneratua 2009).

https://www.icty.org/x/file/Legal%20Library/Statute/statute_sept09_en.pdf

Emakumearen kontrako diskriminazio mota guztiak desagerrarazteko Konbentzioa (1979).

<https://www.ohchr.org/sp/professionalinterest/pages/cedaw.aspx>

Genevako IV. Hitzarmena, gerra garaian pertsona zibilei eman beharreko babesari buruzkoa (1949).

<https://www.icrc.org/es/doc/resources/documents/treaty/treaty-gc-4-5tdkyk.htm>

Genozidio-delitua prebenitzeko eta zigortzeko Konbentzioa (1948).

<https://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/CrimeOfGenocide.aspx>

Giza Eskubideei buruzko Amerikako Konbentzioa (1969).

<https://www.corteidh.or.cr/tablas/17229a.pdf>

Giza Eskubideen Europako Hitzarmena (1950).

https://www.echr.coe.int/documents/convention_spa.pdf

JNZaren Estatutuei erantsiriko Prozedura eta Froga Arauak (bertsio eguneratua 2015):

https://www.icty.org/x/file/Legal%20Library/Rules_procedure_evidence/IT032Rev50_en.pdf

Krimenen elementuak, Nazioarteko Zigor Gortea.

<https://www.icc-cpi.int/nr/rdonlyres/a851490e-6514-4e91-bd45-ad9a216cf47e/283786/elementsofcrimesspaweb.pdf>

Nazioarteko gatazka armatuetako biktimak babesteari buruzko 1949ko Genevako Hitzarmenen I. Protokolo Gehigarria (1977).

<https://www.icrc.org/es/document/protocolo-i-adicional-convenios-ginebra-1949-proteccion-victimas-conflictos-armados-internacionales-1977>

Nazioarteko gatazka armatuetako biktimak babesteari buruzko 1949ko Genevako Hitzarmenen II. Protokolo Gehigarria (1977).

<https://www.icrc.org/es/doc/resources/documents/misc/protocolo-ii.htm>

Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Estatutua (1998).

[https://www.un.org/spanish/law/icc/statute/spanish/rome_statute\(s\).pdf](https://www.un.org/spanish/law/icc/statute/spanish/rome_statute(s).pdf)

Ruandarako Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Estatutua (bertsio eguneratua 2002).

<https://www.ohchr.org/en/professionalinterest/pages/statuteinternationalcriminaltribunalforrwanda.aspx>

Sierra Leonarako Auzitegi Bereziaren Estatutua (2002).

<http://www.rscsl.org/Documents/scsl-statute.pdf>

Tortura eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo laidogarrien kontrako Konbentzioa (1984).

<https://www.ohchr.org/sp/professionalinterest/pages/cat.aspx>

Nazioarteko eta nazioko jurisprudentzia

Ruandarako Nazioarteko Zigor Auzitegia

Prosecutor v. Akayesu, Judgment (ICTR-9640T), 1998ko irailaren 2koa.

Prosecutor v. Kayishema et al., Judgment (ICTR 95-1-T), 1999ko maiatzaren 21ekoa.

Prosecutor v. Rutaganda, Judgment (ICTR-96-3-T), 1999ko abenduaren 6koa.

Prosecutor v. Alfred Musema, Judgment (ICTR-96-13-T), 2001eko azaroaren 16koa.

Prosecutor v. Laurent Semanza, Judgment (ICTR-97-20-T), 2003ko maiatzaren 15ekoa.

Prosecutor v. Silvestre Gacumbitsi, Judgment (ICTR- 2001-64-T), 2004ko ekainaren 17koa.

Antzinako Jugoslaviarako Nazioarteko Zigor Auzitegia

Prosecutor v. Mucić et al., alias “Čelebići”, Judgment (IT-96-21-T), 1998ko azaroaren 16koa.

Prosecutor v. Anto Furundžija, Judgment (IT-95-17/1-T), 1998ko abenduaren 10ekoa.

Prosecutor v. Kvočka et al., Judgment (IT-98-30/1), 2001eko azaroaren 2koa.

Prosecutor v. Dragoljub Kunarac, Radomir Kovač and Zoran Vuković (Kunarac et al. epaia), Judgment (IT-96-23-T& IT-96-23/1-A), 2001eko otsailaren 22koa.

Prosecutor v. Dragoljub Kunarac, Radomir Kovač and Zoran Vuković (Kunarac et al. apelazio epaia), Judgment (IT-96-23 & IT-96-23/1-A), 2002ko ekainaren 12koa.

Sierra Leonarako Auzitegi Berezia

Prosecutor v. Alex Tamba Brima, Brima Bazzy Kamara and Santigie Borbor Kanu (Sentencia Armed Forces Revolutionary Council), Judgment (SCSL-04-16-T), 2007ko ekainaren 20koa.

Prosecutor v. Alex Tamba Brima, Brima Bazzy Kamara and Santigie Borbor Kanu (Sentencia en apelación Armed Forces Revolutionary Council), Judgment (SCSL-04-16-T), 2008ko otsailaren 22koa.

Prosecutor v. Charles Ghankay Taylor, Judgment (SCSL-093-01-T), 2012ko maiatzaren 18koa.

Prosecutor v. Issa Hassan Sesay, Morris Kallon eta Augustine Gbao (Sentencia Revolutionary United Front), Judgment (SCSL-04-15-T), 2009ko apirilaren 8koa.

Nazioarteko Zigor Auzitegia

Prosecutor v. Thomas Lubanga Dyilo, Judgment (ICC-01/04-01/06-2842), 2012ko martxoaren 14koa.

Prosecutor v. Germain Katanga, Judgment (ICC-01/04-01/07), 2014ko martxoaren 7koa.

Prosecutor v. Jean-Pierre Bemba Gombo, Judgment (ICC-01/05-01/08), 2016ko martxoaren 21ekoa.

Prosecutor v. Jean-Pierre Bemba Gombo, Judgment (ICC-01/05-01/08 A) apelazioan, 2018ko ekainaren 8koa.

Giza Eskubideen Europako Auzitegia

Aydin v. Turquia, Judgment (23178/94), 1997ko irailaren 25ekoa.

M.C. v. Bulgaria, Judgment (nº 39272/98), 2003ko abenduaren 4koa.

Giza Eskubideen Sistema Interamerikarra

GEBI, Caso Raquel Martín de Mejía v. Perú, Txosten zk. 5/96 (zk° 10.970), 1996ko martxoaren 1ekoa.

GEGI, *Caso mujeres víctimas de tortura sexual en Atenco v. México*, 2018ko azaroaren 28ko epaia.

Estatu-auzitegiak

Argentina. 960/11 auziaren epaia. Aliendro, Juana Agostina eta beste batzuk. Pertsonen behartutako desagerraraztea, etxean indarrez sartzea, askatasuna legez kanpo ukatzea, tormentuak, etab. Inputatua Musa Azar eta beste batzuk. 960/11 kausa, Santiago del Esteroko arlo Kriminaleko Ahozko Auzitegi Federala, 2013ko martxoak 5.

Kolonbia. Bogotako Esparru Judizialeko Auzitegi Gorenaren epaia. Justizia eta Bake Aretoa. Magistratu txostengilea: Léster María González Romero, 2011ko abenduaren 1ekoa, *José Rubén Peña Tobón, Wilmer Morelo Castro* eta *José Manuel Hernández Calderasen* postulatuen kontra.

Guatemala. Zigor Epaietarako Lehenengo Auzitegia, *Sepur Zarco kasua*, Epaia (C-01076-2012-00021), 2016ko otsailaren 26koa.

Peru. Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordea. Peruko Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordearen Amaierako Txostena, 2003.

Kongoko Errepublika Demokratikoa.

Tribunal Militaire de Garnison de Haut-Katanga, affaire Gédéon Kyungu Mutanga et autres, RP No. 0134/07, 2009ko martxoak 5.

Cour militaire du Katanga, affaire Gédéon Kyungu Mutanga et autres, RPA n°025/09, 2010eko abenduak 16.

